

uk

256. zenbakia / 2014ko uztailaren 25a



UDAL EUSKALTEGIA

UDAKO ESKAINTZA IKASTARO TRINKOAK

- Uztailaren 1etik 24ra
- Irailaren 3tik 26ra

MAILAK

- Uztaillean: maila guztiak
- Iraillean: HABEren 1., 2., 3. mailak

MATRIKULA EPEA /

- UZTAILEKO IKASTAROAK: ekainaren 24ra arte
- IRAILEKO IKASTAROAK: uztailaren 18ra arte

Lope de Vega, 12. 48930-ROMO- GETXO
94 464 62 99 – 94 464 65 02 / euskaltegi@getxo.net / www.getxo.net

CURSOS DE VERANO CURSOS INTENSIVOS

- 1-29 de julio
- 3-26 septiembre

NIVELES

- Julio: todos los niveles
- Septiembre: títulos HABE 1-2-3.

PLAZO DE MATRÍCULA

- CURSOS DE JULIO: hasta el 24 de junio
- CURSOS DE SEPTIEMBRE: hasta el 18 de julio

LAUAXETA AEK EUSKALTEGIA

UDAKO ESKAINTZA IKASTARO TRINKOAK

- Uztailaren 1etik 29ra
- Abuztuaren 4tik 29ra
- Irailaren 3tik 30era

MAILA GUZTIAK BARNETEGIAK

B1, B2 eta CI-EGA / HABEko mailen egiaztapena

MATRIKULA EPEA /

UZTAILEKO IKASTAROAK: ekaina osoan

ABUZTU/IRAILEKO IKASTAROAK: uztailaren 30era arte

LAUAXETA AEK euskaltegia
Iparbide 6-behea 48991 Algorta-Getxo 94 430 47 34
lauaxeta@aeak.org / www.aek.org/blogak/uribekosta / www.facebook.com/uribekostako.aek

CURSOS DE VERANO CURSOS INTENSIVOS

- 1-29 de julio
- 4-29 agosto
- 3-30 septiembre

TODOS LOS NIVELES BARNETEGIS

Preparación para los títulos B1, B2 Y CI-EGA /HABE

PLAZO DE MATRÍCULA

CURSOS DE JULIO: todo junio

CURSOS DE AGOSTO Y SEPTIEMBRE: hasta el 30 de julio

JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA

UDAKO ESKAINTZA IKASTARO TRINKOAK

- Uztailaren 1etik 24ra
- Irailaren 1etik 26ra

MAILAK: HABE 1 – HABE 2 – HABE 3

MATRIKULA EPEA: ekainaren 26ra arte.

6-16 URTE BITARTEKO UMEENTZAT EUSKARA

ESKOLAK UZTAILAREN 1etik 24ra arte

GOIZEKO 9etatik 12etara

JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA
Algortako etorb. 104 48991 Algorta – Getxo 94.460.66.71 / j.a.agirre@euskalnet.net

CURSOS DE VERANO CURSOS INTENSIVOS

- 1-29 de julio
- 1-26 septiembre

NIVELES: HABE 1 – HABE 2 – HABE 3

PLAZO DE MATRÍCULA: hasta el 26 de junio.

CLASES DE EUSKERA NIÑOS/AS DE 6-16

Del 1 al 24 de JULIO

POR LAS MAÑANAS de 9 a 12

BERBALAGUNA UZTAILEAN ETA IRAILEAN
BERBALAGUNA EN JULIO Y SEPTIEMBRE

Astero elkartuko gara terrazetan, eguzkitan, izozki bat jateko edo garagardo bat elkarrekin edateko, lasai lasai euskaraz berba egiten dugun bitartean. Herrian bazaude eta talderen batean sartu nahi baduzu, deitu lasai!

EGIZU
Martikoena 16, 2. solairua, 3. bulegoa Algorta- Getxo
619 935 541 / egizugetxo@gmail.com www.egizu.org

Nos juntaremos todas las semanas en alguna terraza para charlar en euskera mientras tomamos el sol, comiendo un helado o mientras degustamos una cerveza. Si te quedas en Getxo y quieres practicar euskera llámanos.

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK
SUBVENCIONES PARA APRENDER EUSKERA

Getxoko Udalak Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzen ditu; udako trinkoak egiteagatik ere eska dezakezu diru-laguntza beti eta baldintzak betetzen badituzu.

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA
Basagoliti etorbidea 20 (Etxe Sorgindua) 94 466 00 10
euskara.zerbitzua@getxo.net www.getxo.net/euskara

El Ayuntamiento de Getxo dispone de ayudas para aprender euskera; en caso de cumplir los requisitos puedes solicitar la subvención también por los intensivos de verano.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoka Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamasas, K.Oleto, Amaia Ariaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO
Euskara zerbitzua

Leioa
UDALA - AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua

Bermeo
UDALA

Erandio
UDALA

Sopelako
UDALA

Urdulizko
UDALA

Plentziako
UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TRATU TXARRREN
BIKTIMAK ARTATZEKO
EUSKO JAURLARITZAREN
TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

HEZKUNTZA, KULTURAZA POLITIKA,
ETIK, KULTURUA GAILA
Herriak eta Herriak - Garbi eta Garbi
**DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA, CULTURA Y CULTURA**
Ministerio de Educación, Política,
Cultura y Cultura

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kulturako Saila
Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA. David Crestolo Kres / Amaia Ariaga.
5. IRUDIA. Saskibaloiko taulak zakarrontzietan.
6. FACEGUK. Eskualdeko zein hondartza duzu gustukoen? Zergatik?
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako azoka, 40ko hamarkada.
8. URIBITAKORA. Beñat Vidal Gurrutxaga.
9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. MUNDUKATUAK. Oihana Bonilla Gabarain.
11. ERRETRATUA. Facundo Ortiz de Zarate.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Bertso Jaialdi Mundiala Algortan.
28. ARGAZKIA. Bigantxak Plentzian, XX. mende hasieran.
30. BERBETAN. Charo Roquero Ussia.
34. FOTOGRAFIA. Asier Mentxaka.
40. SAKONEAN. Rufino Arrola, “Andrakako errementaria”, trikitilaria.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Euskaraz bizi nahi dut film laburren lehiaketa.
43. MUSIKA. Getxo Folk jaialdia irailan.
44. LIBURUAK. Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketa.
45. KIROLAK. Diego Izquierdo.
46. ZIENTZIA. Oiloa ala arrautza?
47. EUSKARAetaERAKUNDEAK. Euskararen sustapena eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Hanburgesa faltsua.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Geroa ikastolako guraso-taldea paelletan, 1980.
54. AITORMENAK. Ursula Strong.

Azala: Asier Mentxaka

www.ukaldizkaria.biz



30 Charo Roquero Ussia

Berbetan

Euskal Herriko prostituzioaren bide galdu-ilunak arakatu, eta liburua kaleratu du Donostiako historialariak.



11 Facundo Ortiz de Zarate



54 Ursula Strong

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



Leihatila

> Amaia Arriaga

Kontrasteak

Oilar-oilanda pareia ikusi dut gaur goizean Astrubuduko saihe**s**bideko errepide bazterrean, beste aldeko espaloitik joan diren andre-gizonak baino ibilera arinagoan, eta eurei begira geratu naiz, nondik demontre agertu ote diren asmatu nahian, harik eta bide ertzeko ate handi baten azpitik desagertu diren arte.

Bista altxatu eta metro geltokiaren ondoko orubean dabiltzan hondeamakinei begira paratu naiz, behin kea dariola ezagutu genituen lantegien tokian lurra zelan berdintzen duten ikusten.

Burua apur bat jiratu eta, errepidearen beste aldean, Kossler enpresa zenaren eraikin tatoa ere behera botatzen ari direla ikustean, sasoi bateko inguru honetako industriaren azken lekukotzak desagertzera doazela otu zait.

Egon naizen tokitik apur bat aldendu eta aspalditik hutsik eta guztiz hondatuta dagoen Alkonena etxaldera hurreratu naiz. Sasiek pikuarbola irentsi dute.

Metro gutxi batzuen bueltan daukat begi bistan industriaren eta baserriaren gainbeheraren arrastoa, laster erabat galduko dena.

David Crestelo Kres

Kakarraldo Rugby taldea, kirola baino gehiago

Duela egun batzuk Plentzia eta Uribe Kostako Historiaren VII. Jardunaldiak burutu dira. Tokiko historiari buruzko gai ezberdinek ‘Uribe-Kosta Butroe aldeko gizartea, lana eta ekonomia’ landu dute: Gazteluondo errotaren garrantzia eta galera, Grao etxeko Arruza - Arriaga familiaren gorabeherak, XVII. eta XVIII. mendeko istinkarien lan-borrokak, Aramburu Farmazia-Museo proiektu berria eta Kakarraldo Rugby Taldea, ikuspuntu sozial batetik ezagutarazten saiatu naizena.

Edonori futbol munduko txapelketako garailea nor izan den galdetuz gero, zalantza barik izena asmatuko luke. Aldiz, errugbiko txapelketa jokatzen dela badakizue? Agian bai. Eta irabazlerik?

Bizkaian jokoan ari denetik futbola kirol “izarra” izan da... kasualitatez. Datuen arabera, XIX. mendearen amaieran, Santutxuko landetan eta Lamiakoko Hipodromoan errugbian eta futbolen, batean zein bestean, jokatzen zuten. Baina futbolak partida irabazi zuen, errugbia ia desagerraraziz. Are gehiago, Bizkaiko errugbi talde gehienak 70. eta 80. hamarkadetan jaio dira, salbuespenak salbuespen.

Kakarraldoren kasuan, 1979. urtean eta Urdulizen hain zuzen ere. Hurrengo urtean taldea Plentzian finkatu zen, Uribe Kostako jokalariekin osatuta. Kakarraldo Rugby Taldea era sakonagoan ezagutzeko aukera izan dugu. Baina ez kirol-esparruan; tituluak, sailkapen onak eta txarrak... alde batera utzi ditugu, talde plentziarrak eta hiribilduak elkarri zelan eragin dioten ezagutzeko.

Hasieratik, erakunde publikoen inplikazioaz gain, herriko denda eta tabernen laguntza ekonomikoa ezinbestekoa izan zen: lehenengo kamisetak eta baloiak garaiko *crowdfunding*-ari esker erosi ahal izan zituzten. Auzolanaren bidez, Txipioko landak, ortuak eta sasitzak errugbi zelai bihurtu zituzten. Kasu batzuetan bi adibide hauek gaur egun praktikan mantentzen dira.

Hezkuntzan ere errugbiak eragina izan du Plentzian. Lehenengo jokalariak institututik irten ziren eta gerokoak, errugbi eskolakoak, ikastetxetik. Nola ez, betidanik herriko jaietako protagonista izan da: tradiziozko ekimenak berreskuratzea tokatu zaio, hala nola Antolin Deu-netako lehenengo egunean ardo zahagia Andra Marira igotzea. Herria girotu du: hondartzan alokatzen zuen tabernatik pasatzea herriko gaugiroan ezinbestekoa izan da; jaietako txosnagunean muntatzen zuen karpa bakarra zen, mota guztietako ikuskizunekin.

Elkarte edo erakunde askorekin burubelarri lan egin du, beste kirolariei omenaldia aurrera eramanez; hitzaldiak, kontzertuak eta beste ekimen batzuk antolatuz (azkena, pasa den asteburuko I. artisau garagardo azoka), etab. Errepasoa luzea eta astuna izan daiteke. Eta okerra, beste faktore batzuk aipatzen ez badituzte, nire ustez garrantzitsuenak: ehunka izan gara Kakarraldotik pasatu garen pertsonok, eta giza balio hori errugbi taldearen izaera osatzeko funtsezkoa izan da. Bestalde, taldeak transmititu dizkigun bizitzarako baloreak ezin ditugu ahaztu.



ALGORTA, 2014KO UZTAILA

Saskiratze garbia / Agian, deigarri gertatzeagatik, oraingoan, lurrera baino paperontzira botako ditugu karame-luaren bilgarria, platanoaren azala, batutako txakur kaka-poltsa e.a. Baloia legez, taulari zuzen begiratu eta jaurtiko ditugu zaborrak sastarrontzira... olgetan legez; saskiratze garbia! Hirukoa! Huts eginez gero, mesedez, sartu arte ahalegindu! Getxo Kirolak-ek 2014ko Europako Kirol Hiriaren izendapena gizarteratzeko kanpainaren baitako ekimena da: “*Kirola edonon*” *goiburua oinarri* , *hiriko altzari eta eremuetan kirolarekin zerikusia duten elementuak jartzen ari dira...*”. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

gu geu

Irailera arte

Irailera arte “*formalak...*” Hobeto: egizue gura duzuena uda ahalik eta gehien goatzeko! Gu ere ahaleginduko gara, zin dagizuegu! Hala da, opor aurretiko azken UK duzu esku artean; azkenean heldu da uda, eguzki sasoia, oporraldia... eta goatzeko prest gaude!

Den-denak ez badira, irail bitarteko eskualdeko jai ia guztiak jasotzen ditu zenbaki honek, horrenbestez, baduzue non aukeratu... Historia konturik ere ez da falta, eta atzera zein aurrera begirakorik ere ez! Den-denak irakurtzeko denbora baduzue...

Irail bitartean, irakurle, eutsi gomendio honi: poltsikoak ez diezagula gozamina mugatu! Astindu burua eta asmatu aukera berriak, doakoak badira, hobe!

Eta, hori bai, betiko legez, ez ahaztu: ondo pasa eta bueltak UK-ri!

UK-ko lan-taldea

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugul!

Uribe Kostako zein hondartza duzu gustukoen? Zergatik?



 Algorta

Gorka Conceiro

> ordezkari komertziala

Normalean Lagako hondartzara joaten naiz, baina faltan botatzen dut Uribe Kostan bezala hondartzan bertan furgonetan lo egin ahal izatea. Izan ere, bertan nagoenean goizeko zortzietan esnatzera behartzen naute, beste tokiren batera joateko. Eskualdeko hondartzetan, berri, ez dago horrelako arazorik.



 Algorta

Anton Pertika

> delineatzailea

Ni Azkorria edo Sopelako Barinatxe hondartzara joaten naiz. Gertutasunagatik joaten naiz horietara, baina lasaitasunapur bat botatzen dut faltan, zarata handia dagoelako horietan. Horrez gain, hondartzan animaliekin egon ahal izatea gustatuko litzaidake.




 Algorta

Marta Barea

> tabernaria

Nik lasaitasuna bilatzen dut gehienbat. Hori dela-eta, Kantarepera edo Meñakozera joaten naiz normalean. Arrigunaga gertuago daukat, baina horretan jende asko dago eta bertan dagoen giroa ez dut gustuko, ezinezkoa da nahi dudana bertan aurkitzea.



 Getxo

Gabriela Suarez

> ikaslea

Joaten naizenean oso ekipatuta joan behar dut, itzalkinarekin eta beste hainbat gauzarekin; bestela ezinezkoa zait eguzki azpian aguantatzea. Eskualdeko hondartzetan itzalkinak uzteko eta hamakak alokatzeko zerbitzurik ez dagoenez, ez zait hondartzara joatea gustatzen.




 Algorta

Jon Mikel Luja

> tabernaria

Nik hondartza lasaietara joatea dut gustuko, Azkorri zein Barinatxera, esate baterako. Horregaz batera, olatuak egotea ere bilatzen dut, nahiz eta surf taularekin ez joan, olatuekin jolastea gustatzen zaidalako; izan ere, hondartzan eguzkia hartzen bakarrik egoteak asko aspertzen nau.



 Algorta

Ane Aguilar

> ikaslea

Ereagako hondartzara joaten naiz normalean, etxetik hurbil dekodalako, eta gehien gustatzen zaidana da bertan dagoen giroa eta jendea. Sopelakoa ere gustuko dut, olatuengatik.



KARLA LLANOS ETXABEEK UZTETAKO ARGAZKIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO AZOKA, 1940 INGURU

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > saltokiak salgai



Plentzia, 2014ko ekaina

Testua: **Beñat Vidal Gurrutxaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Krisiak gure inguru hontan azkenik egin du leher. Kartera zatar baldin badago kalea ez dago eder... Irudikoa izan daiteke UK-ko edozein bazter, nork erosi ez baldin badago ez dago saltzeko ezer.

Irudi zinez deprimentea, argazkian dagoena. Kontsolamendu bat badut behintzat, kontsolamendu zekena; aberastu ez dela egingo noizbait pentsatu zuena makinak saldu behar duela pertsonak ezin duena.

Edozein bazter esan dut, baina da gauza agerikoa auzo denetan ez dela berdin estutuko gerrikoa. Izan daiteke esaldi sinple, hutsal eta topikoa; baina hor goiko argazki hori ez dugu Negurikoa.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**

sustapena@argia.com · 943 37 15 45

zerbitzua > wifia Gorlizko hondartzan



Gakoa turismo bulegoan emango dute

Iragan urtean Kalitatezko Q izendapena lortu zuen EAEko lehenengo hondartza izan ostean, aurton wifia daukan Bizkai-ko lehenengo hondartza izango da Gorlizkoa. Udaletik jakinarazitako epeen arabera, honezkero, wifi-eremua erabilgarri dago; eta hondartzatik berbatik sartzeko aukera eskaintzen du. Doako zerbitzua da, baina erabiltzeko astero aldatuko dituzten gakoak eskuratu beharko dira au-

rretik; horiek lortzeko udalerriko turismo bulegoraino (Eloisa Artaza, 1) bertaratu beharko dute erabiltzaileek. Egin beharreko ibilbidetxo horregaz, herria ezagutu dezaten erabiltzaile horiek erakartzea dute helburuetako bat udal arduradunek. Hegoaldean, gaur egun, Gorlizkoaz gainera, Donostian bakarrik dute zerbitzu hau, Kontxako eta Zurriolako pasealekuan. ○

liburua > Urdulizko leku-izenak batuta

Agustin Egaña Abadek 2009. eta 2011. urte bitartean landa-lana egiten jardun zuen: Urdulizko leku-izenak batzen eta aztertzen. Urdulizko toponimiaren ikerketa-lana osatzen eta garatzen joan da, eta orain, horretan oinarritutako liburuxka argitaratu du Urdulizko Udalak. Argitaratzaileek azaldu dutenez, “Urdulizko leku-izenen gaineko informazio eta dokumentazio asko jaso da”, eta gaur egun

ahoz aho dabilztan leku-izenez gainera, desagertutako hainbat leku-izen ere jaso dituzte liburura; “*guztira, gutxi gorabehera, Urdulizko 600 toponimo jaso dira*”. Hala, Urdulizko leku-izenen liburua herriko kultur etxean eskura daiteke: “*Urdulizko etxebizitza bakoitzeko liburu bakarra emango da, norberaren datuak eman ostean*”, adierazi dutenez; gehiago gura izanez gero, 5 euroan daude salgai. ○



Kultur etxean eskura daiteke liburua



Saski app-aren irudia

aplikazioa > saskia app; errekadutarako lagun

Erosketa zerrendak egiteko mugikor-rrerako eta tablet-erako aplikazioa da Saskia; gainera, zerrendak elkarbanatzeko aukera ematen du, horiek lagun bat baino gehiagoren artean osatzeko, etxean zer dugun jakiteko ere laguntzen du, eta egindako erosketen kontuak ikusteko ere bai. Google Playtik deskargatu daiteke edo web app-a erabil daiteke. Artez Euskara Zerbitzuak Akting ingeniaritzaren

laguntzagaz garatu du aplikazioa eta eurek azaldu legez: “*mandatuak, erreka-duak, enkarguak, erosketak non apuntatu ez dakizula, erosi beharrekoen zerrenda etxean ahaztu duzula... Saskia aplikazioa, egoera horietan lagungarri! Euskara hutsez eginiko aplikazioa da. Ez dakizula “lente-jak” nola diren euskaraz, Saskiak euskarazko ordaina emango dizu instante batean; besteak beste*”. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Oihana Bonilla Gabarain > Candas

“Jende askok lan egiten du asturiera ofizial izateko”

Euskal Herritik gertu bizi da gaurko Mundukatua: Asturiasko Printzerrian, Candas hiribilduan (Carreño udalbatzaren barruan dago). Oihana Bonilla Gabarain areetarra duela sei urte joan zen hara bizitzera, berak dioen legez, maitasunagatik. Lana topatu eta abiatu zen; egia esanda, ez daki noiz bueltatuko den Areetara. Momentuz, primeran bizi da Candasen, sarritan lagun eta senideen bisita dauka eta, gainera, alaba bat ere badu: “Nire ondorengoan hezkuntza euskaraz izatea gustuko nuke, baina familia osoa mugitzea agian ez da erraza; halere, ez dut itxaropena galtzen”.



Maitasunak eroan zuen Oihana Bonilla Candas herrira baina, antza denez, inguru haregaz ere maitemindu zen gure areetarra. Primeran bizi ei da Asturiasen eta, beraz, zein hobe bera baino Printzerriari buruzko sekretuak kontatzeko?

Zer jan... eta edan

Asturies paradisu gastronomikoa da. Zerbait gomendatzekotan, potea litzateke: Fabadaren parekoa da eta ez hain eza-guna, baina potearekin gelditzen naiz.

Zer bisitatu eta zer ez galdu

Cabu Peñes ingurua bisitatzeari ezin bestekoa da, Candasetik iparralderantz joanda dagoen lurmuturra, itsaslabar ikaragarriekin. Eguraldi eguzkitsua eta argia egiten badu, Picos de Europa ikus daiteke bertatik. Avileseko alde zaharra ere itzela da (Candasetik 17 kilometrora dagoen hiri-ria). Bestalde, naturaz gozatu eta Asturias

sakonean ezagutu nahi duenari Muniellos Natur Erreserba gomendatuko nioke: 2000. urtean Unescok Biosfera Erreserba izendatu zuen eta eguneko gehienez 20 lagunek bakarrik bisita dezakete.

Harritzeko modukoa

Batetik, sagardoaren kultura eta balio sozio-kulturala aipatu behar dira: jendea egunero biltzen da *culin* batzuk partekatzeko, edateko erritual bereziarekin. Bestetik, asturiar kultura eta hizkuntza aipatuko nituzke: asturiera ofiziala ez bada ere, jende askok lan egiten du ofizialtasunaren alde. Bestalde, harritzekoa da ere euskal-astur lotura: izaera eta ohitura antzekoak dauzkagunez oso ondo konpon-tzen gara elkarrekin. Adibidez, Candasen, arrantzaren eta kontserba-industriaren ondorioz, abizen euskaldun asko dago, besteak beste: Aramendi, Iriberri, Mendi-guren, Badiola, Karrera edo Echevarria. o



Nor da

Nongoa
Areetakoa

Adina
33

Zertan dabil
Bizitza antolatu du Candasen, lana eta familia dauzka

Ikasketak
Publizitatea eta Harreman Publikoak EHU

Noiz arte
Orain dela sei urte joan zen Candasera eta ez daki noiz itzuliko den

Non dago

Lurraldea
Asturiasko Printzerria (10.603,57 kilometro koadro)

Biztanleria
1.058.976 biztanle

Hiribildua
Candas (Carreño udalbatzaren barruan, Asturiasko kostan; Oviedo hiriburutik 15 kilometrora)

Azalera eta biztanleria
2,21 kilometro koadro eta 7300 biztanle inguru

Hizkuntza
Asturiera da bertako hizkuntza, baina ofiziala gaztelania da.

Dirua
Euroa



“Euzko Gudarosteko teniente izan nintzen”

Facundo Ortiz De Zarate > 100 urte euskara maitatzen

Abuztuaren 13an urtebetetze berezia ospatuko dute Getxoko Jauregi baserrian. Facundo Ortiz de Zarate bertako bizilagunak 101 urte beteko ditu egun horretan, mende oso bat. Getxoztarra 1913. urtean jaio zen Zugaztietan, baina pare bat urte gaz Zornotzara joan zen bizitzera, eta 14 urte gaz beharrean hasi zen: “Zornotzako Jaungoiko Zale inprentan egin nuen behar”. Familiaren egoera ekonomikoa onena ez zen arren, ez zituen ikasketak albo batera utzi: “Goizez garaje baten kontuak eroaten nituen, eta arrastietan meatzetako fakultatibo ikasketak egin nituen”. Baina 23 urte zituela, bizitza irauli zitzaion, gerra dela eta: “Euzko Gudarosteko teniente izan nintzen”, hau da, gudari, eta Bilbo inguruko mendiak babestea izan zen bere egiteko nagusietako bat. Gerra amaitzean, gaixo, Galiziako ospitale batera bidali zuten, baina frankisten atzamarretatik ihes egin guran, bere “gaixoaldia” luzatu zuen: “Ospitalean organoa jotzen nuen, mojentzat abesten...”. 1969. urtean, Getxora bizitzera etorri eta euskalgintzan buru-belarri ibili zen, barbarako: 70. hamarkadan San Nikolas Ikastolako lehendakari izan zen. Bere sendiak aitortzen duenez, euskaraz irakurtzeko zaletasun handia izan du: “Argia, Herria 2000 Eliza...”. Joan dadila orri honetatik ere gure gorazarre xumea. Zorionak eta eskerrik asko, Facundo! o Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Saninazioak

udako lehenak

Getxoko udako **jaien** maratonia **abiatuko** dute **Algortako saninazioek**: adi ibili, **uztailaren 30etik** abuztuaren 3ra **ospatuko** dira-eta, ohi baino **aste akabu** bat **beranduago**



Kuadrillen jaitsierak abiatuko ditu jaiak

Abuztuari ondo etorri egingo diete Algortako **saninazioek** aurten, izan ere, San Inazio bezperan hasi eta abuztuaren 3ra arte luzatuko dira.

Apur bat berandutuko dira Getxoko udako jaiak aurten, izan ere, San Inazio eguna egunean izango da eta bezperan abiatuko dira Algortako jaiak, uztailaren 30ean. Bost egunetarako ekitaldi pila prestatu ditu jai-batzordeak. Esatea, ohi legez, umeentzako jolasak eta tailerrak egingo dituztela egunero, Telletxen.

Baina hamaika ekitaldiren artean, beste batzuk ere egingo dira egunero. Berbarako, suzko zezena gauero urtengo da bazterrak nahastera, kontuz ibili! Su artifizialak, ordea, San Inazio egunez botako di-

tuzte, nondik eta Ereagatik; baina Algorta osoan ikusi ahalko dira.

Egun berean, bertso-maratoia izango da: eguerdiko saioa, bertso-bazkaria eta poteoa, atsedeen barik. Gainera, Kasinon eguerdi guztietan jardungo dira bertsolariak.

«Su artifizialak eta bertso-maratoia San Inazio egunez izango dira, uztailaren 31n»

riak. Jarraian txosnetara hurbil zaitezke, herri-bazkariak egunero izango dira-eta.

Bestalde, eskaintz gastronomikorik ez da faltako Algortan. Berbarako, Esnetik produktuen dastatzea egingo da egunero Telletxen, baita gastronomia-lehiaketak ere, auzoko hainbat plazatan. Hurbildu, bada, jaietara, merezi du-eta! o

Ekitaldi batzuk

- **Uztailak 30, eguaztena:**
 - Pregoia eta txupina (Telletxe, 17:30)
 - Kuadrilla-jaitsiera (San Nikolas, 18:00)
 - Jaitsiera (Cuatro caminos, 20:00)
 - Jota-txapelketa (Biotz Alai, 20:30)
 - DJ Aske! (Kasino, 23:00)
 - Meraki eta Kashbad (Telletxe, 23:00)
- **Uztailak 31, eguena:**
 - Ricardo Ochoa memoria (09:30)
 - Umeentzako jarduerak (egunero, Telletxe, 11:00)
 - Tortilla-txapelketa (Tellagorri, 12:00)
 - Dantza-kalejira (Kasunetik, 12:00)
 - Bertsolariak (egunero, Kasino, 13:00)
 - Bertso-bazkaria (Abian taberna, 15:00)
 - Dantzaldia (Zabala, 19:30)
 - Larrai-dantza (Kasino, 20:00)
 - Los Malvadiños (Tellagorri, 20:30)
 - Suzko zezena (Telletxe, 22:00)
 - Laia + Real McKenzies (Telletxe, 22:00)
 - Erromeria (Kasino, 23:00)

- **Abuztuak 1, barikua:**
 - Goitibeherak (Mariandresena, 12:30)
 - Gazte-bazkaria (Txosnak, 15:00)
 - Umeen jaitsiera (Zodiacos-etik, 18:30)
 - Nebula Selektah, Stepi Selektah (Bad Sound System) eta Las Tea Party (Telletxe, 21:00)
 - Cloverwind (Kasino, 22:00)

- **Abuztuak 2, zapatua:**
 - Expresso 2222 obra (Telletxe, 12:00)
 - Esku-pilota Txapelketa: finala (San Nikolas, 13:00)
 - Bitsa-festa (Tellagorri, 13:00)
 - Txipiroi-txapelketa (Biotz Alai, 13:00)
 - Kuadrilla-bazkaria (San Nikolas, 15:00)
 - Krosa (Kantxa Kirol Moda, 18:00)
 - Futbito Txapelketa: finala (Batzokiko patioa, 19:00)
 - Arotza Mozo taldea (Kasino, 22:00)
 - Boston jai (Telletxe, 23:00)

- **Abuztuak 3, domeka:**
 - Azken diana (herrian, 09:30)

Romon abuztuko bigarren astean > topera!

Abuztuaren 2tik 10era, egun batzuetako atsedena tarteko!



Info+: www.erromo.org

Ohi baino beranduago ere hasiko dira Romoko jaiak aurten: abuztuaren 2an, zapatuan, hainbat ekitaldi egongo dira, baina txupina hurrengo eguaztenean jaurtiko dute, hilaren 6an. Handik eta domekara bitartean atsedeenik ez da izango: ekitaldiak nonahi eta noiznahi, ondo pasatzeko hamaika aukera egongo da.

Txiki, heldu zein nagusi, danontzako ekitaldiak egongo dira. Txikigunea goize-ro zabalduko dute Santa Eugenia plazan eta ume-kuadrillen probetan parte hartuko dute; gainera, eurentzako filmak emongo dituzte eguazten eta eguen gaue-

an Cervantes plazan. Nagusientzat, barriz, askariak, lehiaketak eta dantzaldiak antolatutuzte, ekitaldiren bat egunero.

«Txosnetan zein tabernetan musika-aukera zabala egongo da jaietan»

Bestalde, auzoko Tabernak jaiakaz inplikaturak, kontzertuak eta bestelako ekimenak egingo dituzte egunero auzoko hainbat txokotan. Zelan ez, Ska-Reggae jaialdi ospetsua ere izango da txosnetan bigarren zapatuan, eta gastronomia-lehiaketetan egunero parte hartu ahalko da. o

Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 2, zapatua:**
 - Nekazaritza-azoka (Ibaiondo, 09:00)
 - Herri-bazkaria (Sta. Eugenia, 15:30)
 - Dangiliske (Sta. Eugenia, 18:00)
 - James Room & Weird Antiqua (Gobelondo, 20:30)
- **Abuztuak 5, martitzena:**
 - Aurre-txupinazoa (Cervantes, 12:00)
 - Herri-bazkaria (Cervantes, 15:00)
 - Goitibehera-kalejira (Txosnak, 19:00)
 - Oxabi taldea (Dolores Ibarruri, 23:30)
- **Abuztuak 6, eguaztena:**
 - Plater irekia (Cervantes, 14:30)
 - Txupina (Sta. Eugenia, 19:30)
 - Dantza-alardea (Txosnak, 20:30)
 - Zinema umeentzat (Cervantes, 22:00)
 - Las Fellini (Ganeta, 23:00)
 - Elepunto DJ (Txosnak, 23:00)
- **Abuztuak 7, eguena:**
 - Herri Krosa (Ganeta, 19:30)
 - Bertso Saioa (Txosnak, 20:30)
 - Lingua Navajorum (Ganeta, 22:00)
 - Kontzertuak tabernetan (21:00)
 - The Rise + Esne Beltza (22:30)
- **Abuztuak 8, barikua:**
 - Txitxarilloa (Ganeta, 18:30)
 - Kontzertuak tabernetan (20:30)
 - Playbacka (Dolores Ibarruri, 22:00)
 - Izenik Ez + Izerdi Gorria (23:00)
- **Abuztuak 9, zapatua:**
 - Putxera-lehiaketa (Ganeta, goizean)
 - Bertso-jira (PiPi taberna, 19:00)
 - Ska-Reggae Jaialdia (Txosnak, 21:30)
 - Tekno-gaua (Dolores Ibarruri, 21:30)
 - DJ Kurloi (Ganeta, 23:00)
- **Abuztuak 4, domeka:**
 - Munduko jaiak (14:30)
 - Tortilla-lehiaketa (Artatza, 12:00)
 - Bilbainadak (Txosnak, 18:00)

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 12, martitzena:**
 - Txupina (18:00)
 - Kuadrilla-jaitsiera (Kasinotik, 18:00)
 - Sardina-jana (portuko plaza, egunero, 19:30)
 - Pregoia eta Txo ezartzea (portuko plaza, 19:30)
 - Umeentzako zinema (Dr. Pedro Bilbao plaza, egunero, 21:30)
 - Kontzertuak: Poliputos + Ready Aim Fire (taula handia, 22:30)
- **Abuztuak 13, eguaztena:**
 - Umeentzako parkea (egunero, 11:30-14:30 eta 17:00-19:00)
 - Sokamuturra (hondartza, 11:00)
 - Igela eta tiragoma txapelketak (portuko plaza, 13:00)
 - Umeen jaitsiera (Tellagorritik, 17:00)
 - Umeentzako diskoteka (plaza, 18:00)
 - Herri-kirolak (errepidea, 18:00)
 - Suzko zezena (21:30)
 - Erromeria (21:30)
- **Abuztuak 14, eguena:**
 - Umeentzako pintura-lehiaketa (Etxetxu, 11:00)
 - Skate-tailerra (11:00-14:00 eta 17:00-19:00)
 - Buruhandiak (Tellagorritik, 17:00)
 - Kukaña (18:30)
 - Oumama (plaza, 19:00)
 - Umeentzako ur-jolasak (19:00)
 - D'Prince (taula handia, 22:00)
 - Getxo 1967/2014 dokumentala (Dr. Pedro Bilbao plaza, 23:30)
- **Abuztuak 15, barikua:**
 - Expresso 2222 obra (plaza, 12:00)
 - Herri-kirolak eta Rugby tokata lehiaketa (errepidea, 12:00)
 - Kantuz poteoa (13:00)
 - Malakate Murphy Lawyers (plaza, 21:30)
 - Leche Frita, Sobieth y Ukan (taula handia, 21:30)
 - Suzko zezena (22:30)
- **Abuztuak 16, zapatua:**
 - Marmitako lehiaketa (09:30)
 - Umeentzako arrantza-lehiaketa (erribera, 10:30)
 - Bertsolariak (plaza, 18:00)
 - Marmitako-txapelketa (12:00)
 - Bertsolariak (portuko plaza, 17:00)
 - Las Tea Party + erromeria (taula handia, 21:30)
- **Abuztuak 17, domeka:**
 - Txo erretzea eta azken traka (06:00)

Portu Zaharra > abuztu erdialdean freskatzeko!

Abuztuaren 12tik 17ra ospatuko dira jaiak; **Pijama Eguna** 16an izango da



Info+: www.facebook.com/portuzaharrekojaiak.algorta

Udarak aurrera eginagatik ez da lotuko parranda, izan ere, Portu Zaharreko jaiak abuztuaren erdialdean izango dira: 12tik 17ra. Hondartzan freskatu... eta segi aurrera!

Hutsik egin barik iritsiko dira Getxoko udara sasoiko azken jaiak, Portu Zaharrekoak. Abuztuaren 12an hasiko dira, martitzenean, eta 17ra arte luzatuko dira: domeka goizaldean erreko dute Txo.

Kasino plazan elkartuko dira kuadrillak jaia hasteko prest eta txupina jaurtiko da. Jarraian, porturantz abiatuko dira, bertan pregoia irakurri eta Txo bere lekuan ipintzeko; aurten Jotaparraizu kuadrillak jaitsiko du Txo Kasinotik eta pregoia irakurriko du, iazko jaietako kuadrillen probak irabazi zituztelako. Oraingoan gogotsu ekingo diete jaiari, duda barik!

Pregoia irakurri eta, egunero legez, sardina-jana egingo dute, izan ere, garran-

tzitsua da sabela ondo betetzea parrandari ekin aurretik. Eta egunero ere izango da umeentzako zine-emanaldia, non eta Doctor Pedro Bilbao plazan, 21:30ean. Aipatzea abuztuaren 14an, gainera, Getxori buruzko dokumental bat proiektatuko dutela umeentzako filma amaituta-

«Egunero egongo dira sardina-janak, umeentzako zinema eta suzko zezena; azken horregaz adi ibili!»

koan: *Getxo 1967/2014*. Historia hurbila ezagutzeko aukera polita izango da.

Bestalde, suzko zezena gauero adarjoka ibiliko da, kontzertuak hasi baino lehen. Besteak beste, ondoko taldeak igoko dira taula handira: Poliputos, Ready Aim Fire, Leche Frita, Sobieth, Ukan, Malakate Murphy Lawyers edota Las Tea Party Dj's. Eta ez ahaztu: zapatuan izango da Pijama Eguna eta marmitako lehiaketa! o

Romotar zinemagile finak Urtzi Perez Gerrikagoitiak eta Unai Garate Cotanok film **labur** bana **estreinatu** dute



Unai Garate Cotano, *Aner* film laburra aurkeztu zuen garaian

Etxeko zinema produkzioa bor-bor dago, izan ere, romotar zinemagile bik film labur bana estreinatu dute: Urtzi Perez Gerrikagoitiak *Betiko istorioa* eta Unai Garate Cotanok *Ordu erdi*.

Betiko istorioa laneko aktore dira Miren Gaztañaga eta Ines Garcia Cardenal, eta Madrilen izan zen aurre-estreinaldia ekainean. Perezek, gainera, beste hainbat film egin izan du, berbarako: *Ahora*, *Amada Mantis* eta *Entre interiores*. Azken lan horri, hain zuzen, herriko film onenaren saria emon zioten 2012an Leioako Film Laburren Lehiaketan.

Bestalde, Unai Garate Cotano auzoki-

deak *Ordu erdi* filma aurkeztu barri du: “*Auzoan isiltasuna eta gaua egiten denean emakume bat entrenatzera irteten da egu-nero...*”. Arrate Etxeberria da aktore nagusia eta beragaz batera jardun dira Gari-koitz Aldekoa eta Clarisse Guiraud. Garatek publizitate eta ikusentzutekoe-tan dihardu Bufalo Produkzioak ekoiz-tetxean, eta bigarren film laburra du *Ordu erdi*. Estraineko lana izan zen *Aner*, eta “*onespena jaso du estatu mailan zein nazio-arte*an”: sariak emon dizkiote eta finalista izan da hainbat zinema jaialditan. o

Info+: www.bufaloprodukzioak.com eta facebook.com/carab.producciones

ANTZEZTUTAKO BISITA GIDATUAK UDAN

Bizkaia Zubia eta Portu Zaharra modu berezian ezagutzeko, beste behin ere, antzeztutako bisita gidatuak abiatu dituzte: irailaren 28ra arte egingo dira. Gidari profesionalek laguntzeaz gainera, “*garai*ko pertsonaiak harremanetan ipintzeko aukera izango da” eta horrek “*espazioak modu dibertigarrian eta didaktikoan ulertzeko parada*” eskainiko du. Bizkaiko Zubiko bisitak zapatuetan dira eta Portu Zaharrekoak domeketan. Helduek 3 euro ordaindu behar dute, umeek ezer ere ez.

Info+: www.getxo.net

ALTXOR NATURALAK BIZKAIKO ZUBIAN

Munduko *altxor naturalak* argazki-erakuske-ta ikus daiteke Bizkaiko Zubian irailaren 30era arte. “Balio unibertsal paregabea daukaten 70 paisaietan barna ibiltzeko aukera eskainiko digu, antolatzaileen iritziz, “*UNESCO-k Ondare Natural izendatutakoak, tartean planetako leku natural ederrenetako batzuk*”. Portugaleteko eta Getxoko kaietan kokatu dituzte irudiak, baita Bizkaia Zubiko terrazetan eta pasabide panoramikoan ere.

Info+: www.puente-colgante.com

SKATE-TXAPELKETA IRAILAREN 6AN

Arrigunagako La Kanteran jokatu-ko da Volcom BOWL-A-RAMA skate zirkuitu profesionaleko probetako bat, irailean. Horrenbestez, Getxo munduko erdigune bihurtuko da aste horretan: erakustaldiak, kontzertuak eta skate-kulturari lotutako era guztietako ekintzak egingo dira. Gainera, master-mailako eta profesionaleko lehiaketak jokatu-ko dira hilaren 6an. Orain arte, Sidney, Wellington eta New York hirietan jokatu da txapelketa. Getxoren hautaketa, barriz, duela urte bi baino gehiago lantzen hasi ziren, bertako skate-taldeak La Kanteraren 25. urteurrena ospatu zuenean. Urte bi beranduago ikuskizun ederra hartuko du Arrigunagak.

Info+: www.bowlarama.com.au

Inprimatu zure posterra airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin Pilo bat daukazu aukeratzeko



www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko



9,32€

-tik hasita BEZ barne

Joseba Lasuen Velasco > Torresolo kirolguneko koordinatzailea

“Txirristak erabiltzeko gitxieneko altuera errespetatu behar da, ezustekorik gerta ez dadin”

2010ean zabaldu zituzten Torresoloko kanpoko igerilekuak eta ezagunak dira inguruan bere txirristak; umeentzat zein helduentzat daude. Udarako plan dibertigarria dira eta irailaren 14ra arte zabalik egongo dira.

—Zelakoa da Torresolo kirolgunea?
—Alde bi dauzka: batetik, tenis eta padel pistak daude, eta urte osoan zabaltzen dira; bestetik, igerilekuak daude eta horiek udan zabaltzen dira, ekain erdialdetik irail erdialdera.
—Uda hasieran eguraldiak agian ez du asko lagundu?
—Egun on pare bat izan dugu, baina gainontzekoetan eguraldiak ez du lagundu. Badirudi aste honetan ona datorrela eta espero dugu toki danak betetzea: 1.140 lagunentzako tokia daukagu.

—Zein jende mota hurbiltzen da?
—Goiz hasieran udalekuetako umeak. Leioakoak batez ere, baina inguruko herrietatik ere badatoz, erabiltzaile partikularrakaz gertatu bezala. Izan ere, igerilekuok ezagunak dira inguruan ere. Jende gehien elkartzen da arrastiko lehen orduan, jendea lanetik urtetea. Familiak eta umeak dira gehienak. Batez ere, azken horiei zuzenduta daude igerilekuak. Hiru daude:



Info+: www.leioakiroldegia.net

lehenengoa ume txikientzat; bigarrena ume apur bat nagusiagoentzat, ontzi pirata eta dana, eta hirugarrena handia. Azken horretan helduentzako txirristak ere badaude, beraz arazo barik jolas daitezke umeak zein helduak. Hori bai, erabiltzeko gitxieneko adina eta altuera errespetatu behar dira, hain zuzen, fabrikatzaileak markatzen dituenak; eta hori ondo ulertu behar da, ezustekorik gerta ez dadin. bestalde, taberna-jatetxea dago eta, jendeak

jatekoa etxetik ekarri gura izanez gero, bazkaltzeko atondutako tokia ere badago.
—Sarrera egun osorako baliagarri da?
—Bai, arazo barik sartu eta urten daiteke egun barruan. Orain, gainera, Sakonetan ere eros daitezke sarrerak eta erabiltzailekopurua uneoro on-line kontsulta daiteke. Jendea gustura dator, instalazioak oso ondo daude-eta: ondo hartuko ditugu, bazkaltzeko aukera dago eta, gainera, padelean ere jolas daitezke. ○

Mastitxun eskaintza barria

Udal-euskaltegian **modulu barriak** eskaini eta **Berbaldun** proiektua **abiatuko** dute



Info+: www.euskaltegileioa.com, euskaltegi@leioa.net eta 94 464 00 02

UK aldizkaria ulertzeko arazoak dituzu? Lasai, horrek badauka-eta konponbide erraza: euskaltegietan izena emon eta apurka-apurka menperatuko duzu euskara. Eskaintza zabala da eta, barbarako, Mastitxu udal-euskaltegiko lagunek esan digutenez datorren ikasturtean irakaskuntza-modulu gehiago eskainiko dituzte.

Mastitxu arduradunek azaldu digutenez, orain arte 10 eta 25 orduko moduluak eskaini dituzte baina, 2014/15 ikasturtean 6 ordukoa abiatuko dute. Gainera, euskaltegia egun osoan etenaldi barik zabalduko dute eta, horrenbestez, aukera egongo da eguerdian klaseak jasotzeko:

14:00etatik 15:30era izango da eskola bat, eta beste bat 15:30etik 18:00etara.

Bestalde, hezkuntza-eskaintzaz gainera, egitasmo barria abiatuko du udal-euskaltegiak: Berbaldun proiektua. Euskaraz hitz egiteko taldeak izango dira, “*Berbaldun egitasmoaren antzekoa*”. Euskaltegiko ikasleak batera parte hartu ahalko dute gainontzeko leioaztarrek. Proiekturako arduraduna ere izendatu dute eta, printzipioz, ikasturte birako hitzartuta dago egitasmoa. Euskara ikasteko zein Berbaldun proiektuan parte hartzeko izena emotea irailetik aurrera izango da, euskaltegian bertan (Iparragirre etorbidea, 78). ○

LEIOA JAIRIK JAI: LOTU BARIK AUERRERA DOAZ!

Hainbat auzo, hainbeste jai: Leioako auzo txikiek ere ospatuko dituzte jaiak udan; badago aste akabu askotarako plana: Pinuetan abuztu hasieran izango dira jaiak, 2tik 10era; Santimamin, abuztuaren 17an eta 18an; eta San Bartolomen, abuztuaren 22tik 24ra. Ene! Eta ez horiek bakarrik, ikasturte barria heldu arren, jai-giroa ez baita etengo: Ondizen irailaren 5etik 8ra ospatuko dituzte eta Udondon 10, 12 eta 13an; gainera, Ondizen, Bakailao txapelketa egin ohi da irailaren bigarren aste akabuan. Ondo pasa eta ez pasa!

Info+: www.kulturleioa.com

ERTIBIL ERAKUSKETA: AZKEN EGUNAK

Oraindino garaiz zabilta Ertibil Bizkaia erakusketa ikusteko: arte plastikoaren erakusketa ibiltaria abuztuaren 3ra arte egongo da Kultur Leioan. Ekitaldi honetan saria jaso dute ondoko artistek: Maria Azcona (Iruñea), 8848 metros margoagatik (akrilikoa mihise gainean); Kristina Losa (Gasteiz), Concrete obragatik (oihal gaineko margoa, akrilikoa eta transferra erabiliz); eta Oihana Torre (Bilbo) 49 kubo lanagatik (3 argazki osatutako obra). Beste 14 artistaren lanak ere ikus daitezke.

Info+: www.kulturleioa.com

UDAN LAPURRETAK SAIHESTEKO GIDA

Urtero legez, oporrak bitartean, etxean lapurretak saihesteko aholkuak batzen dituen gida kaleratu du Udalak, lapurreten %40 udan gertatzen dira-eta: hain zuzen, jabeak egun batzuetan etxetik kanpo egoten direnean. Besteak beste, gomendatzen da “*senide edo auzokoren bati eskatzea posta jasotzeko; noizbehinka etxeko leihoak irekitzeko; edota etxeko ate nagusiaren eta zoruaren artean tarterik ez dagoela ziurtatzea, zertarako eta palanken erabilera saihesteko*”. Liburuxka osoa daukazu udaleko webgunean.

Info+: www.leioa.net

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regarazar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia*
irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)



Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf.: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Jorge Garcia Mesurado Koke > Erandio Kirol-Elkarteko idazkari teknikoa

“Ilusio handiz, denboraldi duina bete eta, apurka, hirugarren mailan finkatzea espero dugu”

Hirugarren mailara igo da Erandio futbol-taldea, Laudiokoa ordezkatzuz. Erandio orain dela 22 urte ez da lehiatu maila horretan, eta pozik daude. Jorge Garcia Mesurado kirol-elkarteko idazkari teknikoagaz berba egin dugu.

—Aste batzuetako zalantzaren ostean, hirugarren mailara igo zarete.
—Bai, kontua da ezin izan genuela zuze-nean igo Arenas taldearen garaipena dela-eta. Beraz, apur bat itxaron behar izan ge-nion beste talde baten zorigaitzari: azke-nean, Laudio mailaz jaitsi da ez duelako lortu nahikoa diru hirugarrenean manten-tzeko, eta administratiboki jaitsarazi di-tuzte. Ez da atsegina, izan ere, euskal talde bat gitxiago da liga nazionaletan, baina beno, gu igotzeko balio izan du.

—Promozioa irabazi zenuten, zuen la-nak izango du zerikusirik?
—Kirol-arloan denboraldi itzela izan da, azken hamabost urteotako onena: biga-rren lotu gara ligan eta promozioa irabazi dugu. Gainera, datorren urtean gure men-deurrena da eta igoerak biribilduko du. Biak ospatuko ditugu merezi moduan, izan ere, entrenatzen hasi gara eta orain tarte gitxi daukagu ospakizunetarako. Bai-na ospatuko dugu. Azken batean, igoera gure lanari saria da, lorpen handia. Espero



Info+: www.erandioclub.org

dugu datorren ikasturtean ere denboraldi ona betetzea. Gainera, eskola sortu dugu, ume askok parte hartzen du eta lorpen hau positiboa izango da ildo horretan ere.
—Aldaketa handia izango da?
—Bai, betebeharrak batzuk daude, gehienak ekonomikoak: soilik federazio-gastuak oraingoan hirukoitza izango dira; eta hori ezer egin barik, gastu finkoak dira. Beraz, ahalegin handia izango da, areago gurea lako talde apalentsat. Horregatik, espero dugu erakundeek laguntzea gai horretan,

bai udalak, bai federazioek. Babesle ba-riak ere bilatu beharko ditugu eta gaurko egoeran ez da gauza erraza izango. Baina dirua lortu behar dugu hirugarren mailan duintasunez egon ahal izateko. Jokalari gazteak dauzkagu, Erandio taldean joka-tzeko gogo handidunak: dirua eskaini arren beste taldeetan jokatzeari uko egin diotenak. Ilusio handiz, denboraldi duina bete gura dugu, apurka hirugarren mailan finkatu eta, akaso, aurrerago pentsatuko dugu helburu handiagoetan. ○

Astrabuduan > *sanlorentzoak* abuztuan!

Abuztuko **lehen jaiak** Astrabuduan izango dira: **ez hutsik egin!**



Mojinos Escozios musika-taldeak joko du abuztuaren 9an, zapatuan

Abuztua bertan dago, opor-sasoia, baina lasai egon: orduan ere izango da jairik Erandion. Astrabuduan *sanlorentzoak* ospatuko dituzte abuztuaren 6tik 10era, Erandiogoikoan Andra Mari jaiak 14an eta 15ean, eta Santimami auzoan 17an eta 18an. Gainera, *sanagustinak* izango dira Alzaga auzoan abuztuaren 27tik 31ra. Horrenbestez, parranda aukeran daukate erandioztarrek uda honetan ere.

Astrabuduan prest daukate egitaraua eta, ohi legez, hamaika jarduera prestatu ditu jai-batzordeak, eguaztenean hasi eta domekara arte. Berbarako, umeentzako eta

gazteentzako ekitaldi andana egongo da: goizero izango dira txikilekua, gaztelekua eta tailerrak. Gainera, kuadrillentzako probak eta bestelakoak ere egongo dira: play-

«Mojinos Escozios, Kresala eta Los Cinco Bilbainos taldeek joko dute»

back lehiaketa, bitsa-jaia, umeentzako DJ, e.a. Nagusiak ere ezin kexa, musika eskain-tza zabala egongo da-eta: Mojinos Esco-zios, Kresala eta Los Cinco Bilbainos talde-en kontzertuak izango dira. ○

Oharra: azken orduko aldaketak egon litezke

Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 6, eguaztena:**
 - Txikilekua (11:30)
 - Kuadrilla-jaitsiera (19:00)
 - Pregoa eta txupina (20:30)
 - Larrain-dantza (20:45)
 - Txitxarrikoa (22:00)
 - Dj Mangas (23:00)
- **Abuztuak 7, eguna:**
 - Txikilekua (egunero; 11:00)
 - Tortilla-lehiaketa (11:00)
 - Umeen lehiaketa gastronomikoa (12:00)
 - Gynkana herri-kirolak (17:00)
 - San Lorentzo txapelketa finala (20:00)
 - Suzko zezena (21:30)
 - Txitxarrikoa (22:00)
- **Abuztuak 8, barikua:**
 - Molto gp lehiaketa (12:15)
 - Playback txikientzat (17:00)
 - Los Cinco Bilbainos (20:30)
 - Playback helduentzat (22:30)
 - Kresala (00:30)
- **Abuztuak 9, zapatua:**
 - Marmitako-txapelketa (10:00)
 - Tiragoma-txapelketa (12:00)
 - Udal Musika-Banda (13:00)
 - Arrantza-txapelketa (15:00)
 - Kuadrillen erronka (18:00)
 - Igela-toka txapelketa (19:30)
 - Herri-lasterketa (19:30)
 - Txitxarrikoa (22:00)
 - Mojinos Escozios (23:00)
- **Abuztuak 10, domeka:**
 - Paella-txapelketa (10:00)
 - Gaitero-kalejira (11:00)
 - Sokaren aurrekua (13:00)
 - Bitsa-jaia (13:00)
 - Ume-gynkana (16:30)
 - Idi-probak (18:00)
 - Dantza-alardea (20:00)
 - Umore bakarrizketa (22:00)
 - Ulpianori agurra (23:30)

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com



COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria
- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

ASP PRO JUNIOR SOPELA
TXAPELKETA ARRIATERAN

Aste akabu honetan izango da Sopela Pro Junior surf txapelketa, uztailaren 24tik 27ra, ASP Europe Pro Junior Series txapelketako proba. Bertan parte hartuko dute 20 urtetik beherako 140 surflarik, tartean Leticia Canales, Natxo Gonzalez eta Ethan Egigurenek. Peñatxuri Surf Taldeak antolatzen du ekitaldi hau; Sopelako Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Red Bull eta Surfing Euskadiren babesagaz, eta Euskal Herriko Surf Federazioaren laguntzagaz.

Info+: www.aspworldtour.com

NAZIOARTEKO FOLKLORE
JAIALDIA, UZTAILAK 27

“Geologiaren ezagutza indartzeko eta memoria historikoa bultzatzeko” labarretara bisita gidatuak egingo ditu Turismo Bulegoak: abuztuaren 30ean eta irailaren 27an izango dira, 11:00etatik 13:30era. Sopeloztarrei nahiz turistei zuzenduta daude, eta izena emon behar da Turismo Bulegoan (Loiola Ander Deuna, 28) edo Sopelako Informazio Puntuan (Aretxabaleta enparantza, 1). Prezioa 3 eurokoa da. Bestalde, umeentzako *Dinosauroen aztarnen bila* tailerra antolatu dute, eta izen-emotea eta prezioa bisita gidatuen berberak dira.

Info+: 944 065 519

GAZAKO ERASOAK
GELDITZEKO ESKAERA

Sopelako Udal Gobernuak Gazako erasoak “berehala” gelditzeko eskatu du. “Hiru gazte israeldarren heriotza tragikoaren ondotik palestinarren kontrako zigor kolektiboa burutzen” ari dela deritzo. Bere iritziz, horrek “proporzionaltasun, zuhurtzia eta borrokariaren eta zibilen arteko bereizketa printzipioak urratzen ditu, eta guztiz arbiuatu behar da”. Horregatik eskatu du bortizkeria gelditzeko, eta elkarriketaren eta negoziazioaren bidez gatazka konpontzeko.

Info+: www.sopela.eus

Semaforoak ipini dituzte!
Larrabasterran semaforo bi ipintzeko bai-
mena emon zuen Aldundiak azkenean



Semaforoak ipintzeko lanak, uztail erdialdean

Larrabasterra igarotzen duen foru-errepidean abiadura murrizteko neurriak hartzeko eskatu dute auzokideek urtetan. Semaforoak ipintzeko baimena eskatu zion Udalak Foru Aldundiari “errepidearen arriskutsua delako eta hainbat istripu jazo direlako”, eta emon diote: pultsadoreak daukaten semaforo bi ipini ditu BI-634 foru-errepidean. Alabaina, Sopelako Udalak ordaindu behar du lanen kostua: 27.000 euro. Daborduko amaitu dituzte kokapen-lanak.

Zehazki, Karmen baselizaren aurreko zebrabidean ipini dituzte (Loiola An-

der Deuna, 45), bertan “istripu ugari gertatu” izan da-eta. Berbarako, 2012ko irailean pertsona bat hil zen eta urte bereko urrian beste bat larri zauritu.

Oraingoz, pultsadore bitartez kontrolatuko da oinezkoen joan-etorria baina, “etorkizunean horien eskaria handituko balitz eta horrek sistema kolokan jarriko dina, ziklo egonkorra duten semaforoak jarriko dina, gutxienez eskari gehien duten orduetan”. Udalak uste du neurri horrek “errepide horretan segurtasuna eta mugikortasuna hobetzen lagunduko” duela. ○

Info+: www.sopela.eus

Iñigo Arketa Zabala > karateka

“Arte martzialak arima-pizgarri dira: bizitzan integratu ostean nekez utziko dituzu”



Info+: www.gimnasioindarbide.com

Indarbide gimnasioko nagusia dugu Iñigo Arketa Zabala. Karateari lotuta bizi da eta urtero erakustaldia egiten du ka-lean, ekain aldera, ikasleak lagun.

—Gimnasioko lana herritarrei gerturatu gura diezu kaleko erakustaldiak?

—Urtero egiten ditugu, 1986an gimnasioa zabaldu genuenetik. Ikasle danek parte hartzen dute, ume zein heldu: 79 urte daukan gizon bat ere badago, ikasle baino maisua da daborduko. Klase bat egiten dugu: alde teknikoa landu eta praktikan zelan erabili erakusten dugu. Arte martzialak agresiboak direlako ustea dago, indar basatia erabiltzen dela, baina ez da horrela: oinarri batzuk daude, errespetua, autokontrola, e.a. Karateagaz gorputzaren ezagutza bilatzen da, berau zelan erabili: gorputza ezagutuz teknika indartsuak gara daitezke, umeek ere, betiere errespetutik eta kontrolatuak. Autodefentsa ere ikasten da eta erakustaldian hori dena egiten dugu: gimnasia,

beroketa, katak (karate-teknikak) eta erabilera praktikoa. Oso polita da adin guztietako karatekak ikustea, izan ere, karatea bizi osoan praktika daiteke. —Eguneroko bizitzagaz harremana dauka karateak?

—Bai, noski. Osasuntsua da, besoak eta hankak erabiltzen dira, eta horrela indarraren oreka lortzen da. Gorputzaren ezagutza hori egunerokoan erabilgarri da, jarrera egokia izateko ibiltzerakoan, eser-tzerakoan... ohitura osasuntsuak garatzen

«Bizi osoa daroat
karatean; erraza zait
irakastea, nigaz doalako»

dira, gorputzaren egoerari buruzko kontzientzia hartzen da eta arima-pizgarri dira arte martzialak: bizitzan integratu ostean, hain dira intimoak, nekez utziko dituzula. Karatea bizitzarako bidea da, osasunerako modu bat. Nik 40 urte daroatzat karatean, bizi osoa, eta oso erraza zait irakastea, nigaz doalako. ○

DIDAK
hAMILTON
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OIARBIDE
DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!

Bentabx 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

OSTBIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Santa Ana

- **Uztailak 25, barikua:**
 - Haur-ikuskizuna (19:00)
 - Sardina-jana (20:30)
 - Urtz taldearen kontzertua (23:30)
 - Erromeria (01:30)
- **Uztailak 26, zapatua:**
 - Txirrindularitza-lasterketa (11:00, Sabino Arana)
 - Meza (12:30)
 - Nagusientzako hamaiketakoa eta Simon Otxandategi dantza-taldearen emanaldia (13:00)
 - Zaldi-probak (18:00)
 - Tor magoa (19:00, antzokian)
 - Txokolatada (20:00)
 - Simon Otxandategi dantza-taldearen emanaldia (21:00)
 - Erromeria (23:30)
- **Uztaila 27, domeka:**
 - Puzgarriak (12:00-14:00/16:30-19:30)
 - Oilasko pintxo-banaketa (20:00)
 - Mariatxiak (20:30)

Santo Domingo

- **Abuztuak 2, zapatua:**
 - Haur-ikuskizuna (19:00)
 - Pilota-partidak (19:30)
 - Simon Otxandategi abesbatza (21:00)
 - Umeentzako tailerrak (20:00-21:00)
 - Erromeria Egan taldeagaz (23:00)
- **Abuztuak 3, domeka:**
 - Haur-parkea (12:30-14:30 / 17:00-20:00)
 - Bitsa (13:30-14:30)
 - Bilbainadak (19:00)
 - Hanburgesa-dastaketa (20:30)
 - Bertsolariak (21:00)
 - Erromeria, Joselu Anaiak (23:00)
- **Abuztuak 4, astelehena:**
 - Meza (12:00)
 - Nagusientzako hamaiketakoa eta dantzak (13:00)
 - Idi-probak (19:00)
 - Gorritiren animalia-ikuskizuna (18:00-20:00)
 - Disco Festa Xaibor (20:30)

Berango **jaietan blai** **Santa Ana eta Santo Domingo** prest dira auzotar danen **gozamenerako**



Berangoztarren gogo eta bultzadez, jai-giro ederra izango da

Uztail akabuan eta abuztu hasieran helduko dira Santa Anako eta Santo Domingoko jaiak Berangora. Hala, uztailaren 25ean hasiko dira Santa Anako jaiak; egun horretan, besteak beste, sardina-jana eta Urtz talde mitikoaren kontzertua izango da, 23:00etan. Hurrengo egunean, zapatuan, goizeko 11:00etan txirrindularitza-lasterketa izango da, arrastian zaldi-probak, Tor magoa eta Simon Otxandategi dantza-taldearen ikuskizuna. Iluntzean, barriz, erromeriak alaituko du auzoa. Azken egunean, hilak 27, umeentzako puzgarriak eta

pintxo-banaketa izango dira, eta jaietako esateko mariatxiak egongo dira, 21:00etan. Abuztuaren 2an, *santodomingoak* hasiko dira, frontoian izango diren pilota-partidak batera. Arrastian kantaldiak eta tailerrak izango dira, eta iluntzean erromeria izango da Egan taldeagaz, 23:00etan. Domekan, hilak 3, haurrentzako parkea, bilbainadak, bertsolariak eta Joselu Anaien erromeria izango dira. Astelehenean, hilak 4, berriz, idi-probak, animalien ikuskizuna eta disko-festa egongo dira. ○

Josu Larrañaga Arrieta > historialaria

“Gazteluondo marea-errotak Plentziako historia islatzen du”



1506tik 1960ra arte jardun zuen Gazteluondo errota; 1988an eraitsi zuten

Plentziako historiaren inguruko jardunaldien baitan, gau egun Jai Alai frontoiaren aurrean zegokeen Gazteluondo marea-errotaren gainean berba egin du Josu Larrañagak, Eusko Ikaskuntzako historialariak, *“hiribilduaren historia oso ondo islatzen duelako”*. Halako beste errota bi egon dira itsasadarrean, *“baina ez dira hain ezagunak gaur egun”*.

—Zergatik da hain garrantzitsua Plentziako Gazteluondo errota?
—Hitzaldi honetan, nire asmoa zen errota hori erabiltzea Plentziako historia islatzeko. Izan ere, errota hori eraiki arte, inguru honetan Butroitarren zeukaten garia eta bestelako zerealak ehotzeko monopolioa, eta ez zuten beste errotarik eraikitzen utzi. Hala ere, hainbat tira-biraren ostean, 1506an Udalak Gazteluondo errota eraikitzea lortu zuen. Errota honek itsasoko mareak erabiltzen zituen funtzionatzeko, eta urte osoan funtzionatzeko ahalmena zuen. Hori oso garrantzitsua zen, bestelako errotek udan, hiru hilabetez, gelditu

behar baitzuten, errekek ez zutelako behar besteko urik; marea-errotek jarraikortasun bat eskaintzen zuten.
—Noiz arte funtzionatu zuen?
—Errota hori Plentziako Udalaren jabetza izan zen 1810era arte, frantsesen aurkako gerran saldu egin behar izan zuten. Harrezkeroztik, familia beraren eskuetan geratu zen 1924ra arte. Ordutik aurrera

«Plentziako itsasadarrean hiru marea errota egon ziren guztira»

Ameriketarik etorritako pertsona baten esku geratu zen: Felix Etxeita; hura izan zen Gazteluondoko azken erroaria. Honek 1960ra arte ustiatu zuen errota, bere semeagaz batera. Azkenik, 1988an, Plentziako Udalak bota egin zuen. Bestalde, errota honek zazpi errota-harri izan zituen, eta hori oso berezia da, normalean ur-errotek bat edo bi zituztelako. Zergatik hainbeste? Urtegia urez betetzen zenean, arin-arin husten zelako, ordu batzuetan, hori dela eta hainbeste errota-harri. ○

Plentziako Jaiak

- **Abuztuak 22, barikua**
 - Herri bazkaria (Astilleron, 14:00)
 - Antolintxu eta Madalentxuren harrera (Astilleroko arrapalan, 17:45)
 - Txupin jaurtiketa (18:00)
 - Dantza erakustaldia (20:00)
 - Gaujai zuria Boston Jai taldeagaz (23:00)
- **Abuztuak 23, zapatua:**
 - Marmitako lehiaketa (10:00)
 - Koadrillentzat olinpiadak (18:00)
 - Umeentzako mozorro desfilea (19:00)
 - Plentzia kantari (Plazatxoan, 20:00)
 - DJ saioa (23:00)
 - Euskal gaujai Haitzama taldeagaz (Eliza enparantzan, 24:00)
- **Abuztuak 31, domeka:**
 - Helduentzako mozorro desfilea (19:00)
 - Kontzertuak La Talkiband, Doctor Flashback eta DJ Nihil-Fiesta Funky taldeagaz (21:00)
- **Irailak 1, astelehena:**
 - Nekazal eta abeltzain azoka (09:00)
 - Euskal jantzien desfilea (12:00)
 - Herri kirolak (18:00)
 - Helduentzako play-back lehiaketa (21:00)
- **Irailak 2, martitzena:**
 - Koktelak (14:00)
 - Umeentzako play-back lehiaketa (18:00)
 - Eletrotxaranga TTEK taldeagaz (20:00)
 - Kontzertuak talde lokal, Txapel Punk eta Moon Shakers taldeagaz (22:30)
- **Irailak 3, eguaztena:**
 - Arraun eta tortilla lehiaketak (10:00)
 - Barbakoa (20:00)
 - Antolintxu eta Madalentxuren agurra (20:30)

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Urdulizko Jaiak

- Irailak 5, barikua:**
 - Txupin jautiketeta (19:00)
 - Kale antzerkia (Lehendakari Agirre plaza, 20:30)
 - Kontzertuak Madkichen, DJ Novato eta DJ Dani M taldeegaz (Landa, 23:00)
- Irailak 6, zapatua:**
 - Umeentzako parkea (11:00)
 - Goitibehera jaitsiera (Santa Mariñeko malda, 16:00)
 - Kontzertuak Dabelyu eta Garilak 26 taldeegaz (Landa, 23:00)
- Irailak 7, domeka:**
 - VII. Kotxeetako Urdulizko Slalom-a futbol zelai zaharreko aparkalekua, 16:30)
- Irailak 8, astelehena:**
 - XXXVIII. Andra Mari Txirindularitza sari nagusia (16:30)
 - Dantza emanaldia (Landa,20:00)
 - Suziriak (Landa, 22:30)
- Irailak 12, barikua:**
 - VI. Skate Xpression (skate pistan, 18:00)
 - Kontzertuak Entxufaus, Ukan eta Betagarri taldeegaz (23:00)
- Irailak 13, zapatua:**
 - Iratxo Gorri dantza taldea (11:30)
 - Esku pilota partida profesionalak (17:00)
 - Kick boxing erakusketa (21:00)
 - Kontzertuak Papa Blues Band, Sin Rumba Fija eta Urrats taldeegaz (23:00)
- Irailak 14, domeka:**
 - Mus txapelketa (16:00)
 - Areto-dantzak (Iparralde kiroldegia, 18:00)

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Gorliz

Jaien maratoiak lau eguneko geldialdia egingo du Gorlizen *santiagoetan*



Info+: www.gorliz.eu

Udako jaien maratoiari jarraituz, Santiago egunaren bezperan hasiko dira festak Gorlizen; hala, uztailaren 24an hasi eta lau egunez dantzan eta alai ibiliko dira gorliztarrak han eta hemen...

Uztailaren 24an, parrandazaleek datozen egunei aurre egiteko tripa beteko dute herri-bazkarian, eta arrastiko 19:45ean, botako den pregoiagaz eta txupinagaz *santiagoei* hasiera ofiziala e-mango diete. Segituan herriko taldeek jaitsiera egingo dute, eta iluntzean, hainbat abesbatza XX. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdian arituko dira. Santiago egunean, hilak 25, nekazaritza azoka hartuko du goiz osoan Artzelu plazak. Horregaz batera, gorliztarrak baserritarrez jantzi eta kalejiran arituko dira herriko kaleetan. Eguerdian, ohorezko aureskua eta dantzaldia izango da eta ondoren kronoeskalada txapelketa egingo dute. Arrastian, ordea, umeentzako ur jolasak eta bigantxak izango dira; eta hain gazte

ez direnentzako kupela ibiltaria, antzerki emanaldia eta play back lehiaketa. Iluntzean, Oxabi erromeria taldea arituko da. Zapatuan, barriz, gastronomiaren ordua helduko da, bakailao eta tortilla txapelketakaz. Horrez gainera, goizean bigarren eskuko azoka eta umeentzako jola-

«Oxabi erromeria, Governors, Zea Mays eta DJ Merrell taldeek hartuko dute ohol-tza»

sak izango dira; arrastian, dantzaldiak, ginkana, mozorro lehiaketa eta errezi-taldi musikala, besteak beste. Iluntzean, musikak eta dantzak hartuko dute protagonismoa: folk jaialdiagaz eta Governors, Zea Mays eta DJ Merrell taldeakaz. Uztailaren 27an, domekan, amaituko dira *santiagoak*, baina ekitaldiz lepo e-gongo da Gorliz: eskulangintza azoka, bizikleta ibilbideak, herri kirolak, play backa eta bertso saioa, etab. o

Uzt. 25 - Ira. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GORLIZ
► **Gonzalo Bartolome Tierraren argazkiak.** Abuztuaren 6ra arte. Erakustaretoan. Doan.

GETXO
► **Adolfo Martinen margoak: irudi geometrikoak.** Abuztuaren 8ra arte. Algortako erakustaretoan. Doan.

PLENTZIA
► **Paul Ygartuaren margoak.** Abuztuaren 4tik 14ra. Goñi Portalen.
► **Asia Bihotzean: Javier Belasko eta Mikel Lopez de Vergararen argazkiak.** Abuztuaren 18tik 29ra. Goñi Portalen.

ANTZERKIA

GETXO
► **Tor magoaren ikuskizuna.** Abuztuak 14, 19:30ean. Algortako Geltokia plazan. Doan.
► **Irakurritz.** Abuztuak 29, 19:00etan. Neguriko Gernika parkean. Doan.
► **Nazioarteko Folk Jaialdia.** Irailaren 4tik 7ra. Areetako Geltokia plazan eta bertako aparkalekuan.

MUSIKA

SOPELA
► **Nazioarteko Folklore Jaialdia.** Uztailak 27, 20:30ean. Urgitxieta plazan. Doan.

GORLIZ
► **Beau Geste.** Uztailak 31, 21:30. Xurru tabernan. Doan.
► **Lee Pert trio.** Abuztuak 7, 21:30. Xurru tabernan. Doan.
► **Igelaren banda.** Abuztuak 14, 21:30. Xurru tabernan. Doan.

Info+: www.getxophoto.com

► **Argazkilaritza**
Getxophotok Borrokak erakutsiko ditu
“Libertateen, duintasunaren eta gizakiaren aldeko borrokak” erakutsiko dituzte Getxophoto argazki-jaialdiko irudiek, abuztuaren 28tik irailaren 28ra. Mundu osoko hamazortzi argazkilariren lanak ikusi ahaliko dira Ereagatik Portu Zaharrera bidean, eta Algortan, batzuk kalean, besteak aretoetan; Christian Caujolle komisario frantsesak aukeratu ditu. Gainera, hainbat jarduera prestatzen ari dira antolatzaileak eta, batez ere, abuztuaren 28 eta 31 bitartean izango dira garrantzitsuenak. Horien artean, herriarren argazki-proiektzioa egingo dute: zaleek eta profesionalak beren irudiak igor ditzakete ondoko helbidera, uztailaren 31 baino lehen: getxophoto@gmail.com.

• **Non:** Algortan • **Noiz:** Abuztuaren 28tik irailaren 28ra

► **Joseba Irazoki.** Abuztuak 21, 21:30. Xurru tabernan. Doan.
► **Maracas para dos eta Velas Barru.** Abuztuak 28, 21:30. Xurru tabernan.

GETXO
► **Pottoka disko-jaia umeentzat.** Abuztuak 4, 19:30ean. Algortako Geltokia plazan. Doan.
► **Biotz Alai abesbatza.** Abuztuak 10, 22:00etan. Algortako Biotz Alai plazan.

PLENTZIA
► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Abuztuak 11, 20:30ean. Elizan.

ZINEMA

BARRIKA
► **La pandilla: los heroes del dia.** Abuztuak 1, 22:00etan. Pilotalekuan.
► **El lobo de Wall Street.** Abuztuak 8, 22:00etan. Pilotalekuan.

SOPELA
► **Surfak zoratuta.** Uztailak 26, 22:15ean. Udaletxe-plazan. Doan.
► **Asterix eta Obelix. Maiestatearen zerbitzura.** Abuztuak 9, 22:00etan. Urgitxieta plazan. Doan.

► **Chef.** Abuztuak 23, 22:00etan. Urgitxieta plazan. Doan.

BESTEAK

SOPELA
► **ASP PRO Junior Sopela Surf Txapelketa.** Uztailaren 24tik 27ra. Arriatera hondartzan.
► **Lasterketa nudista.** Uztailak 26, 10:30ean. Barinatxe hondartzan.
► **Geologia tailerrak umeentzat.** Uztailak 26 eta abuztuak 23, 11:00etan. Arriatera hondartzan. 3 euro.
► **Bisita gidatua itsaslabarretara.** Abuztuak 30, 11:00etan. Larabasterrako Turismo Bulegotik. 3 euro.

GETXO
► **Tailerra: surik gabeko gozogintza.** Uztailak 29, 19:30ean. Neguriko Gernika parkean. Doan.
► **San Lorenzo azoka.** Abuztuak 10, 10:00etatik aurrera. Algortako San Nikolas eta Biotz Alai plazetan.
► **Letren terrazak.** Uztailaren 30era arte, Gernika parkean (Neguri), Iturgitxi plazan (Algorta) eta Sarri plazan (Andra Mari). Abuztuaren 4tik 29ra, barriz, Geltokia plazan (Areetan), eta Aldapa eta Geltokia plazetan (Algorta).

PLENTZIA
► **Diseinu eta artisautza azoka.** Abuztuak 3. Ontziola plazan.
► **Plentzia kantari.** Abuztuak 31, 20:00etan. Plazatxotik.

ERANDIO
► **Olgetan euskaraz.** Abuztuaren 9an, Astrabuduan (17:00); 18an, Santimamin (17:30); eta 28an, Altzagan (17:00).
► **Piraguen doako mailegua.** Uztaleko eta abuztuko aste akabuetan, 10:00etatik 14:00etara. Altzagako ontziralekuan.


[albuma]




A ze fauna ederra!

Flora izan zen gaia Algortako Bertso Saio Mundialean, baina fauna ederra batu zuten oholtza gainean: Jone Uria, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Fredi Paia, Maialen Lujanbio eta Jon Maia, eta Aitzol de Castro lorezain. Landareak ikutu, usaindu eta dastatu zituzten, askotarikoak; loreak ere bota zituzten, denetik eta denen gusturako; bitxiloreei orriak kendu zizkieten dotoreziaz... lorategi polita gau hartakoa!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Bigantxak

Plentziako plazan

Atzera eta aurrera, alde batera eta bestera. Korrika. Bigantxagaz harrapaketan olgetan. Antzina ohikoa zen bigantxakaz jolasean ibiltzea herriko ospakizunetan, animaliek horretarako umorerik izan ez arren. Herriko festak heldu orduko, zezen-plaza inprobisatu bihurtzen ziren herriko plazak; XX. mende hasierako irudi honetako Plentziako Eleiz enparantzaren antzera. Bertara joaten ziren auzokide guztiak, batzuk animaliaren aurretik korrika egitera, bigantxaren adarrei ihesi; beste batzuek, hesiaren osteko segurtasunean geratzea nahiago zuten, lagunei begira. Zezen-plazaren harea zapaltzerako, ezin begirik kendu bigantxari! Ez bizkarrik eman! Konturatu orduko, argazkiko gaztea legez harrapatzen zaituelako! Hala ere, adarkadetatik salbu egoteko leku aproposa bazegoen plazaren erdi-erdian... Gaur egun ez dagoena.

PLASENTIA BUTROE MUSEOA

Orain dela hilabete gitxi batzuk plazaratu zuen Charo Roquero Ussia historialariak (Donostia, 1954) *Historia de la prostitucion en Euskal Herria* (Txalaparta) liburua. Historia Modernoan lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea) da Roquero eta Zientzia Politikoak eta Soziologia ikasketak egin zituen Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Euskal Herriko Historia Garaikideari buruzko zenbait entziklopediatan parte hartu du, baita soziologian espezializatutako beste batzuetan ere. Donostiako Historia Ikasketen Aldizkarian hamaika argiltapen egin ditu, besteak beste, karlistaldiez idatzi du eta Donostiako benefizentziaren historia liburua ere plazaratu zuen.

Charo Roquero

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **ArgazkiPress**

—Zelan sortu zen Euskal Herriko prostituzioaren historiaren liburu bat kaleratzeko ideia? Entzun dugunez, Nafarroako elizbarrutiko agiritegia arakatzan ari zinela, hemen birjintasunak izandako itzelezko balioaz konturatu eta...

—Argitaletxeari aurkeztutako proposamena beste bat zen: Euskal Herriko XVII-XVIII. mendeetako emakumeen bizimoduari buruzko lana osatzea zen asmoa; nola bizi ziren, nola dibertitzen, zer irizpide moral eta presio sozial bizi zituzten, gizarteak zer zuen ontzat, zer gaitzesten, emakumeek egunerokotasunean zeri egin behar zioten aurre e.a. Apaizen predikuak, aitortzak, sozialki onartzen zena, amen gomendioak eta halakoei erreparatuz, orduko morala nolakoa zen aztertzea zen nire helburua. Ondorio nagusia da birjintasunak eta izen ona izateak eta gordetzeak berebiziko garrantzia zuela; eta ohore horrek, are gehiago, nolabaiteko prezioa zuen: galduz gero neskatoa ezingo zen ezkondu, ez “aukera” berekin... Birjintasunari ematen zitzaion neurri gabeko garrantzia benetan harrigarria iruditzen zitzaidan; hortaz ari ginela, prostituzioaren gaia atera zen, eta horren garapena aztertzeko aukera; Euskal Herrian emakume

bat halako egoerara heltzeko baldintzak...

—Ikerketa zabalago baten zati bat, beraz

—Bai. Egia da, prostituzioaz zehatz-mehatz diharduen dokumenturik ez dagoela. Prostituta pertsona anonimoa zen, ia klandestino, isilpekoa, ezkutukoa; beraz, dokumentuetan beti zeharka aipatzen da, “*bazekitela hura zela... Hartaz esaten zela...*”, hala beti; ez badi-ra, noski, diziplina-neurri edo epaiei zegozkienak, horiei buruzko dokumentazioa bada, esaterako: Gipuzkoako Batzar Nagusiek “emakume arruntekin” ez nahasteko, nola zigortu, elizak nola baztertu eta halakoak ja-

“Birjintasunaren neurri gabeko garrantzia harrigarria zen; hortik sortu zen prostituzioaren gaia lantzeko haria”

sotzen dituztenak; beti ere zigor-neurriek loturikoak, ikuspuntu horretatik bada dokumentazioa; ikuspuntu sozialekorik ez.

—Zelako terminologia erabiltzen zen?

—‘Put’-rako euskarazko baliokiderik, nik behintzat, ez dut aurkitu; harrigarria da. ‘Emagald’ hitza bada, itsusia izateaz gain, itxurakeria hutsa da, “kursia”! “*Emagaldutara*

joan” edo halakorik nik ez dut inoiz entzun!

Terminologiarik ere ez dago! Gaztelerazko dokumentuetan, besteak beste: ‘mujer alegre, liviana, ligera’ (emakume alaia, kaskarina, bu-ruarina) eta halakoak agertzen dira; badirudi jauzika eta pozik zebilena zela, ezta?! Eta berak erabakitako aukera pertsonal eta bolun-tarioa balitz bezala... Aitzitik, garai hartan, gaur egun ere askotan, hautu hori ez da nahi-ta hartutakoa, baizik eta egoera zein baldin-tzek behartutakoa: miseria, txirotasun, pre-mia gorriak eragindakoa. Nik aztertutako le-henengo garaian, hautu pertsonaltzat jotzen

zen, gizartearentzat emakume hark gogoko zuelako prostituitzen zuen bere burua; sexua, “lizunkeria, haragikeria, lohikeria” gogoko zituelako... ‘de vida alegre’ bezalako terminoak, benetan, a ze nolako kutsua duten!

—Goraipatzen duzunez, prostituzioan jarduteko arrazoi nagusia beharra, egoera ekonomiko larria zen...

—Hala da; bereziki, emakumeek ez zutelako lan-esparrurako sarbiderik, gizonaren menpe egon behar zuten, adibidez: birjintasuna galduz gero, haurra bazuen are okerrago, ez zuen beste lan-aukerarik... Garai hartan emakumeek lor zitzaketen lan mota oso gutxi zeuden: ostalari edo ostalerts, tabernaria... Eta horietan jar duten zutenen ohorea ere nahiko zalantzazkoa izan ohi zen, emakume “errazak” omen...

—Landa-eremuetan bizi zuten egoera ala hirietan bizi zutena nabarmen desberdintzen ziren...

—Ez dute zerikusirik! Estatistikaren arabera, jatorriari dagokionez, lehenengo eta behin, prostituta gehienak etxeko lanetan zebiltzanak ziren, neskameak. Baserrian, familiarentzat zama izateari utzi zion neskaila hirira joan eta neskame aritzen zen, orduan, ia beti, “gaizki ulertutako” nolabaiteko obedienezaren izenean, etxeko jauna edo jauntxoa bere logelan sartu eta... Horiek izaten ziren lehenengo pausoak. Gainera, ezin ahaztu, askotan ez zutela hizkuntza menderatzen, eta gehienetan neskailak zirela, oso xalo eta inuzenteak; 12-14 urterekin hasten ziren zerbitzu-lanetan. Hori da prostituten jatorriari dagokionez, hirietan, lehenengo multzoa; gero, artekari edo ezkutatzaileen eskuetara pasatzen ziren... Bestalde, baserri-giroko eremuetan, lehenengo multzoa, gehienak ostalari-tabernariak ziren, mandazainen geltokietan eta mendateetan ere nahikotxo ibiltzen ziren, eta oro har, jornalariak biltzen ziren tokietan, adib.: Nafarroan.

—**Bertokoak edota atzerritarrak ziren?**

—Atzerritarrak ez horrenbeste. Donostian agian gehixeago; asko Iparraldekoak. Hori bai, asko mugitzen ziren, askotan aldatzen zituzten lekuz; burdeletan aldiro berriak nahi zituztelako, eta dituztelako, “produktu freskoa”... Horren atzean, emakumearen gauza bihurtzea, gauzatzat hartzea.

—**Gizarte-klase bereizketa handia dagoela aipatzen duzu; ondorioz, prostituziorako baldintza eta leku ezberdinak... Hasi elizgizonen “manzebetatik” eta...**

—Trentoko Kontzilioa baino lehen erlijioso-zelibatua anekdota edo bitxikeria baino ez zen, ez zuten betetzen. Herritarrek ere onar-

tzen zuten, ez ikusia egiten zuten, ez zuten gaizki ikusten; gerora bai... Maila ezberdinetakoak daude bai, hasi ostalaritik eta, oro har, bere etxean jendea hartzen duten emakumeetarako... horiek ere ez ziren gaizki ikusiak, esaterako: jostuna, lisatzailea, eta horiek euren etxean hartzen zituzten gizonetzkoak susmo “arrarorik” eragin gabe... Hori herrikoei dago-kienez, gero maitale, amorante, ohaide edo

“Estatistikoki, hirietan, prostituta gehienak neskameak ziren; baserri-giroko eremuetan, ostalariak...”

mantenduak baziren, eta horiek garai batean prestigioa adierazten zuten, gizonaren ahalmenaren adierazle ziren, alegia...

—**Bilbo, Barakaldoko adibideak dituzu...**

—Bai. Aurretik aipatutako horiek industria-iraultza baino lehenagokoak dira. Gero, XIX. mendeko Bizkaian, industria-iraultza garaian, hainbat aldaketa antzeman daiteke. Immigrazio handia izan zen, lanera etorritakoak... Barakaldo zein Ezkerraldera etorritako langileen gehiengoa gizonak ziren, etxebizitza eta higie-ne baldintza oso txarretan bizi ziren... Beraz, garaiko prostituzio-baldintzak ere benetan kaskarrak ziren; sifili zein gaixotasun beneroen hedapen, kutsadura handiko epea izan zen, ez zegoen inolako kontrolik, ez garbiketari zegozkionik ez besterik ere... Bilboko egoera bitxia da, arreta deitzen du: alde batean baziren, prostitutarik eta pobreenak, baldintzarik eta

“Datatutako lehen putetxearen jabetza udalarena zen; Iruñean zegoen, Arrotxapean, harresiaren kanpo aldean”

txarrenetan aritzen zirenak, higie-ne eta osasun arazo larriak jasan behar izaten zituztenak... Hori, azken finean, industrializazioaren, me-atzaritzaren, boom haren, historia sozialaren dirudunaren, amorantea dago, Kale Nagusian hark jarritako etxean bizi dena... Burdelak gizartearen ispilu dira: putetxerik eta zikinene-

tik, txanpaina zerbitzatzen eta piano jotzailea zuen burdeleraino...

—**Eta ibaiaren beste aldeko, Uribe Kostako, informaziorik aurkitu duzu?**

—Uste dut badela zerbait, baina ez dut go-goan... Ez zuten gogoko nahas zitza-ten, ez zegoen genero elkartasunik... Nonbait irakurri dut, Neguriko-eta txaletetara joaten ziren jos-tunak, kortse edo gerruntzeak-eta eramaten

zituzten, baina beti arreta jarri ohi zuten prosti-tutekin nahastu ez zitza-ten...

—**Non arakatu duzu eta zelako iturriak erabili dituzu lan honetan?**

—Batez ere elizbarrutiko agiritegia eta hainbat herritako udal-agiritegiak begiratu ditut. Egia esan, asko eta asko legedi kontuak dira; Gipuzkoako Batzar Nagusienak, eta Tolosako agiritegikoak, Korrejimendu-artxibokoak... Gai hauen ikuskaritza, noski, hiru estametu-ei zegokielako ikuskaritza: udalari, elizari eta korrejimenduari. Bizkaiko kontu gutxi ditut, normalean Iruñera joaten naizelako, Donostia Iruñeko elizbarrutian zegoelako, eta uste dut Bilbo Calahorrakoan zegoela; halere antzeko kontuak egongo dira...

—**Liburua zati bitan banatzen da; batez ere XVIII. eta XIX. mendeetan oinarritzen da...**

—XVII. mendekoa ere bada. Aurreko gutxi

dago, bitxienetakoa esaterako: 1500 eta piku-an, Iruñean, harresira heldu baino lehentxeago, Arrotxapean, merkataritza gun-e indartsua zena, mandazain asko gelditzen ziren lekua, bazela putetxe bat, orduko “errepideko mote-la”; udala prostitutentzako etxe bat jartzeko beharraz konturatu zen, hala lehenetakoa edo zitekeen putetxe horren arduraduna udala

izan zen, udala zen proxeneta: eraikina aloka-tzen zuen, zenbateko bat kobratuz, zehazki nolabait prostituten “egoera” antolatze-ko, kontrolatzeko. Beraz, datatutako lehenengo putetxearen jabetza udalarena zen.

—**Ondorioztatzen duzunez, lehenengo arau-di-legeak higie-ne eta osasun kalteak saiheste-ko asmoz egin ziren, ezta?**

—Hala da. XIX. mendean jakinmin eta ardu-

“Bilbon, esaterako: putetxerik eta zikinenetik, txanpaina zerbitzatzen eta piano-jotzailea zuen burdeleraino...”

ra zientifikoak indarra hartu zuen, Ilustra-zioaren ondoren. Garbiketa kontuetan arreta jartzen hasi ziren, izan ere medikuntzako lehe-nengo aurrerapausoak ere ordukoak dira. Orduan konturatu ziren infekzio-foku izuga-riak zirela, eta arduratzen hasi: emakume horiek mediku-azterketak egin zitza-ten arau-dia ezarri zuten, txartel bat bete eta hori ikus-gai jarri... “Garbi zeudela” edo “garbiak zirela” erakusteko! Hori bai, betikoa, guztiz diskrimi-natzailea: emakumeek bakarrik pasatu behar zuten osasun-kontrola; hala, goizean “garbi” egon arren, arratsaldean gizonen batek kutsa-tuz gero... Halaber, azkenean, kontu horren eragin zuzena izan zen nolabaiteko klasdesti-nitatea sortzea: agiri horiek sal-erosi, trukean... —**Arauak, jazarpena eta gero zigorrak, garaian garaikoak, barbarako? Beti ere andrazkoei begirakoak...**

—Noski! Emakumea jo izan da prostituzioa-ren erruduntzat. Badakizu, “Gaitz erdi” teoria famatuari jarraiki: gizonak berebiziko beharri-zanak dauzka, horiek asetzea beste erremedio-

rik ez duenez, behintzat “kontrolatzen” aha-l-gindu behar... Indarkeria, bortxaketak e.a. Euren ustez homosexualitatea ere bai. Hala, orden sozialaren parte denez, saihetsezina eta halabeharrezkoa, besterik ezin bada, legeak egin eta arautze-bideari ekin...

—**Diozunez, zurikeria eta hipokrisia aldez-tea; ezarritako gizarte-sistema sostengatzeko, ezkontza-erakundearen funtzionamendua**

mantentzeko...

—Gizarte-batasunerako sostengutzat... Sena-rriari “irtenbide baketsu eta erosoa” eskainiz gero, “etxeratzean familia eztabaidak egotea saihestuko dugu; ez dio emazteari egotziko besterik, ez da berarengan hustuko... Emaku-mearen benetako betebeharra amatasuna, etxea eta familia izanik, gehiagorik ez dio eska-tuko... horretarako sortu baita emakumea...” Inola ere ez dute kontuan hartzen emakume-ek sexuaz gozatzeko aukera, pentsatu ere ez! —**Jazarpenei dagokienez, hamaika zigor: desberdintzeko janzkera berezia, kaskamotz utzi, bekainak kendu, galerara (emakume-kartzela) zigortu e.a.**

—Prostituta zigortzeko moduen bilakaera horiekiko zegoen pentsaeraren edo jarreraren arabera paralelo garatu da. Erdi Aroan, XVII-XVIII. mendeetan, biziotsutzat zituztenez, emakume zintzoetatik bereiztea zen eginbe-harreako (luma “azafraitua”, horixka eraman be-har zuten; gona gainean puntak zituen oihala jarri, hortik dator “picos pardos” esamoldea,

euskaraz ‘parrandan ibili’ itzuli da; balkoian zuhaitz adar bat jarri, hortik ‘ramera’; galera esaten zitzaien eramaten zituzten etxeei, ema-kume-kartzela alegia, gizonetzkoak galeretara zigortzen zituzten bezala, Bilbon ere bazegoen e.a.)... Irakurri dut, adibidez, Donostian, asto gainean jartzen zituztela bularrak agerian eta ez-tia botatzen zietela gainetik, eta hiriko ha-rresietatik kanpora hala nola irteten ziren ikusteko biltzen omen zen jendea... Gerora, kartzela-zigorra nolabait kendu zuten; eta osa-sun kontuen ardura hartu zutenean, ospitale-tan bereizten zituzten, gela ezberdinetan... Pixkanaka jartzen zitzaien zigorra ez zen hain zurruna edo zorrotza; halere, beti, bereiztea eta baztertzea zen helburua. Ez zieten uzten paseatzera irteten, eta Bilbon, hain zuzen ere, gaueko 20:00ak arte ezin ziren irten; Bilboko udal-araudia nahiko zorrotza zen, egia esan... Ez zuten nahi jendeak ikus zitza-n, leihoetan gortina luzeak jarra-zi, e.a.

—**Zein da lan honetako ondorio nagusia? Zein helburu bete nahiko zenuke?**

—Egia esan, lana 1970 ingurura arte edo heltzen da; nolabait gizartea hasi zenean pros-titutak hain “arrarotzat” hartze-ari uzten. Jen-dea konturatzen zenean ziurrenik behar gorriak eraman dituela horretara, edo dirua poltsikoratzeko beste aukera bat besterik ez dela... Nire ustez, zurikeriarekin, “moral bikoitz” horrekin amaitu behar da, baliabide ekonomikoak lortzeko egiten badute, beste aukera batzuk eskaini beharko litzaie-ke, gizar-te-segurantz, eta lan-aukera izan daitekeela, beste edozein bezalakoa... Eta ez bereiztea, auzune baztertu jakin batzuetara bidali-z... Eta behartuta egiten badute bestelako lan-eskain-tza bat eskainiz... ○

Ikerketa berria esku artean

—**Bestelako argitalpenen bat baduzu esku artean?**

—XVIII. mendearekin lanean jarraitzen dut... Laster aurkeztuko dut beste az-terketa bat; hori XVII. mendeko kontu bati buruzkoa da: Donostiako burges handien alabek senargaia bilatzeko au-

kerarik, maitea hautatzeko aukerarik ez zutela ondorioztatzen duten dokumen-tuak aurkitu ditut, nola emakumea ha-rreman ekonomikoetarako bitartekoa zen; burges handi horiek, oro har, mer-katariak ziren, asko frantsesak, eta ze-rabilten merkataritza-politikaren baitan

alaba ezkontzea ere bazegoen... Eta alabek gurasoengandik ihes egiten zu-tela kontatzen dute idatziek, eta harra-patuz gero komentura sartzen zituela, adib.: Baionako klaratarrenean; gutu-nak ere badira, senargaiari bidalitako-ak, hark bahitu nahi duela eta...



Lomografiak

Bitxiak eta ederrak dira irudiok, kutsu erromantikoa, nostalgikoa darie... Argazki hauek, ordea, mugikorrak egin ditu Asier Mentxaka UK-ko argazkilariak, aplikazio berezi bati esker: Lomo argazki-kamera errusiar mitikoaren teknika berezia darabilen aplikazioa da, hain zuzen ere. Horrela, Mentxakak antzinako bihurtu du Uribe Kostako hainbat txoko. Lurralde urrunetatik, barroteen atzetik, erietxeko ohetik... Herrimina sentitzen duenak halaxe ikusiko ditu, agian, gure bazterrak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Rufino Arrola > *Andrakako errementaria*

Laurogeita sei urte bete arte jo zuen trikitia, estilo zahar eta basatiagaz

Jubilatu ostean bueltatu zen Rufino Arrola trikitiaren mundura, 58 urte zituela. Ordutik, Euskal Herri osoan ibili zen soinua astintzen, eta sariketa ugari irabazi zituen. Beragaz, hainbat panderojole eta kopla-kantari aritu ziren, tartean, askorentzat onena: Kepa Arrizabalaga.

Urte luzez soinua jo barik egon ostean, 58 urtegar trikitiaren mundura bueltatu zen soinu-jotzailea izan zen Rufino Arrola. 1909ko maiatzaren 29an jaio zen Lemoizen, Atauneta baserrian, Mungiatik gertu dagoen Andraa auzoan. Ume zela hasi zen trikitia jotzen, hamar bat urte zituela; eta hamabost urte zituenean ia plazarik plaza ibiltzen zen bere doinuak aurkezten. Hala ere, hamazortzi urte bete zituenean, familia aurrera ateratzeko beharra ikusi,



Arrizabalagagaz Leioan, 1980

eta errementari hasi zen. Hala, lan arazok direla eta, trikitia alde batera utzi behar izan zuen denbora luzez, 58 urtegar jubilatu zenera arte, hain zuzen ere. Momentu

horretan, bihotzean hainbeste urtez giltzapean gordetako musikarenganako zale-tasunak gainezka egin eta gogor ekin zion

Jubilatu ostean, 26 urte eman zituen trikitia jotzen plazaz plaza

barriro ere, herriz herri eta plazaz plaza, trikitia astintzeari.

Rufino Arrolak errementaritza utzi zuenean, gutxik sinetsiko zuten hogeita sei urtetan bizitako martxari helduko zionik. 58 urtegar mailua sutean utzi eta aspaldian alde batera utzitako trikitia jotzen hasi zen... *“Handik mende erdira, ohapean gordeta egondako soinuari, edo soinuaren gomuteari, hain gorputz nekatu batek barriro heltzea pentsetako, grina*



Rufino Arrola eta Kepa Arrizabalaga urte askoz aritu ziren elkarregaz

demoninoren baten txingarrean egon behar eban nonon”, azaltzen du Xabier Amurizak Rufino Arrola, Vulkanoren atzamarrak liburuan.

Plazaz plaza, oholtzaz oholtza

Trikitiagaz gogor aritu zen Rufino, plazaz plaza. Haren alboan panderojole ugari ari-

tu ziren, tartean Kepa Arrizabalaga plentziarra. Xabier Amurizak bikote hori zuzenean ikusi zuen lehen aldia gogoratzen du: *“Euskal Herriko Trikiti Txapelketako bikote batzuen ekitaldia zen. Rufino Arrola eta Kepa Arrizabalaga agertu ziren. Arrakasta itzela izan zuten finalean, eta Azkoitian agertu zirenean, publikoa gora-*

goraka ipini zuten”. Estiloari dagokionez, oso estilo zaharrekoa zen, *“baina zaharrean, basatia”*, dio Amurizak, *“estiloak eta pertsonak ikuskizun bakarra osatzen zuten. Haren espiritua indarra zen. Sua. Soinuari tripak atera. Eta horixe transmititzen zuten”*.

Urguilu handiko pertsona zen Arrola, *“berak bazekin diferentea eta espeziala zela, eta irudi horri sua ateratzen zion”*, azaltzen du Amurizak. Taula gainera igotzen zenean, berotu egiten zen, *“eta publikoa gora-*

Urguilu handikoa zen, eta orduak eman zitzakeen jotzen eseri barik

ka jartzen zuten”. Adinak ez zion trabarik jartzen, eta trikitilari gazteenen antzera, orduak eta orduak eman zitzakeen jesarri barik trikitia jotzen.

Hogeita sei urte eman zituen Arrolak eten barik soinua jotzen. Denbora tarte horretan, hainbat sariketa irabazi zituen, baita hainbat disko grabatu ere, osasun arazoengatik trikitia alde batera utzi behar izan zuenera arte, 86 urtegar. Handik hiru hilabetera zendu zen, 1996an. ○

Xabier Amuriza Zarraonaindia > bertsolaria eta idazlea

“Rufinoren atzamarrek, soinua jo baino gehiago, mailukatu egiten zuten”

—Zerk eroan zintuen Rufino Arrolaren inguruko liburu bat idaztera?
—Euskal Herriko Trikiti Elkartearen proposamena izan zen ea Rufino Arrolari buruz liburutxo bat egingo nuen. Gaia gustatu zitzaidan, onartu nuen, liburua egin zen, eta hor dago *Rufino, Vulkanoren atzamarrekin*.
—Gogoratzen duzu hura ikusi zenuen lehenengo aldia?
—Lehenengo aldia uste dut Azkoitiko

frontoian izan zela. Euskal Herriko Trikiti Txapelketako bikote batzuen ekitaldia zen. Rufino Arrola eta Kepa Arrizabalaga agertu ziren. Arrakasta itzela izan zuten finalean, eta Azkoitian agertu zirenean, publikoa gora-goraka ipini zuten. Kepa Arrizabalaga kopla-kantariarik onetakoa izan da. Neuretzat, onena. Eta Rufinoren irudia, ba, ikaragarria.
—*Rufino Arrola, Vulkanoren atzamarrak* lana aurrera ateratzeko haren in-

guruko familiagaz eta lagunakaz berba egin zenuen, haren pertsona ezin hobeto ezagutzeko aukera izanda. **Zer-zelako pertsona zen?**
—Nik neuk Rufinogaz ez nuen tratu pertsonal handirik izan. Sasoi diferente-etakoak ginen. Jairen batzuetan gertatu izan ginen elkarrekin, baina okasio horiek ez dira izaten harremanerako onenak. Ni bertsolari, bera trikitilari, bakoitzak gunee ezberdinak izaten genituen.

Nahiz eta berba batzuk egin, jende arteko kontua izaten da, eta pertsonak ezagutzeko, jai giroan burrundada lar izaten da. Denborarik luzeena beragaz Elorriora etorri ziren batean egin nuen. Ni bertsolari, beste batzueguz batera, eta bera trikitilari, bakoitza bere zereginetan. Baina gero, gure saioaren ostean, gelditu egin nintzen trikitilarietaz, eta denbora luzea egin genuen tabernarik taberna, musikan eta kantuan. Ni Elorrioko plazara heldu aurretik (goizeko hamaikak aldera), trikitilariak martxan zebiltzan. Hirurak eta erdie-tan edo alde egin nuen Elorriotik. Ba, denbora horretan guztian (sei bat ordu), Rufino ez zen jesarri. Jo eta jo, eta tira mutur ertzeko zigarroari. Laurogeita lau

urte zituen orduan! Harrigarria. Itaundu nion: *“Rufino! Ez al zara kantsaten?”*. Eta berak: *“Deskantsateko, beste munduan dago denporea sobra”*.
—Zelakoa estiloa zuen taula gainean?
—Taula gainean berotu egiten zen. Jen-deak ere halaxe hartzen zuen. Berak bazekien tipo diferentea eta espeziala zena, eta irudi horri sua ateratzen zion. Urguilu handiko gizona zen. Eta gogorrean, burdina baino areago.
—**Trikitia jotzen bueltatu eta urte batzuetara Rufino Arrolaren figura oso ezagun egin zen, ezta?**
—Duda barik. Rufino, soinulari moduan baino gehiago, figura eta espiritu moduan ulertu behar da. Ikuskizun bat zen haren



aurpegikera eta haren soinu jokera, gartsua eta jeniozkoa. Soinuagaz eta gorputzagaz osatzen zuen figura ikusgarria zen. Eta zeukan adinagaz! Oso popular egin zen, eta harritzekoa ere ez da. Hura behin plazan ikusita, gehiago ez zitzazizun haren estanparik ahaztuko. ○



Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra

Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



GIZONENTZAKO MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Euskaraz bizi nahi dut

Kontseiluak sustatzen duen **film labur lehiaketa** martxan



Baldintzak eta betebeharrak ondo ezagutzeko, info+: euskarazbizinahidut.org

Hirugarren biderrez ipini du martxan Kontseiluak "Euskaraz Bizi Nahi Dut" film labur lehiaketa, Donostiako Zinemaldiagaz alkarlanean. Antolatzaileen esanetan, euskaraz bizitzeko gura zabalteko eta euskarazko film laburren sortuntza aberasteko helburuak ditu lehiaketak. Azaldu dutenez, “*Mundua mugi dezaketen pentsamenduak daude. Errealitateak desberdinak izan daitezen eragiten duten pentsamenduak daude. Ez dago portaerarik alde zaurretikako pentsamendurik gabe. Portaera-aldaketa pentsamendu-aldaketa da. ‘Euskaraz bizi nahi dut’ pentsatzera iristen garenean bibur-tzen gara euskararen normalizazioaren aldeko eragile. (...) honako eduki hauek landu nahi ditugu: ‘Euskaraz bizi nahi dut’ pentsamendua hedatzea, herritarrei euskaraz bizitzeko arrazoiak eskaintzea; Euskaraz bizi nahi duten herritarrek pairatu behar izaten dituzten egoerak agerian uztea; horiek eragiten dieten egonezina islatzea; euskaraz bizitzea erabaki dutenen*

adorea eta jasotzen duten elkartasuna adieraztea; euskaraz bizitzeko hautua egin ondoren sortzen eta jasotzen diren estimul positiboak erakustea; etorkizuna irabazteko ‘Euskaraz bizi nahi dut’ pentsamendua iraultzailea dela azpimarratzea”. Lanak film laburren iraupen estandarretara mugatuko dira; masterra gutxienez 1920

«‘Euskaraz bizi nahi dut’ hedatzea helburu duten lanak bidaltzeko azkeneko eguna irailaren 8a da»

x 1080p (Full HD) erresoluzioan egongo da eta konprimitu bako formatuan; lanak helarazteko: lehenengo, Interneteko plataforma batera igo (zehaztutako publikoarentzat ikusgai) eta, gero, lotura info@euskarazbizinahidut.org helbidera bidali egilearen datuakaz. Atal bi daude: profesionalena (1. saria: 2.000 euro; 2. saria: 1.000 euro; 3. saria: 500 euro), eta amauterrena (1. saria: 1.000 euro; 2. saria: 500 euro; 3. saria: 250 euro). ○

Irailera begira

Ara Malikian, Chambao, Osibisa eta Capercaillie Getxo **Folk** jaialdian



Info+: www.getxo.net

Oreka Tx, Kalakan, Fernando Egoz-cua, Jose Luis Monton eta, goiburuan aipatutako, Ara Malikian musikari eta taldeak izango dira Getxoko XXX. Nazioar-teko Folk Jaialdia abiatuko dutenak, irailaren 4an (sarrera 10 euro). Jaialdiko bi-garren egunean, hilak 5, Chambao talde-arena izango da kontzertu nagusia (20 eu-ro); biharamunean, hilak 6, zapatua, Osi-bisa taldearen emanaldia izango da kartel-buru (sarrera 10 euro); eta azken egune-an, hilak 7, domeka, Capercaillie taldeak emango dio amaiera jaialdiari sarrera 15 euro). Kontzertuok Areetako Geltokia

plazan izango dira, 21:00etan; domekakoa izan ezik, azkeneko hori 20:00etan hasiko da-eta.

Emanaldi nagusi horiez gainera, arras-tiko saioak ere izango dira, horietan joko dute ondorengoek: Garikoitz Mendizabal (irailak 4), Hexacorde & Vanesa Muela (irailak 5), La Bazanca (irailak 6) eta Exilio New Tango (hilak 7). Horiek aparkale-kuan izango dira, 19:00etan (domekakoa 18:00etan) eta doan. Halaber, ohi den le-gez, Munduko Terrazak eta haurrentzako ikuskizunak ere badira Getxoko Folk jaial-diko egitarauan. ○

diskoak

Cantus Caterva II
Hasier Oleaga
Errabai jazz / Hotsak



Urte biren ostean, Hasier Oleaga bateria-jotzailea buru, Mikel Andueza (saxoa) Julen Izarra (saxoa), Iñaki Salvador (pianoa, teklatuak); Jon Piris (kontrabaxua), Jorge Abadias (gitarra) eta Fernando Neirak (baxu elektrikoa) osatzen duten “melodiaren taldeak” bigarren lana kaleratu du, 8 soinu-historio jasotzen dituena.

Euskaraz Bizi Nahi Dut
Hainbaten artean
Hainbaten artean



Euskaraz bizitzeko eskubi-dea ozen aldarrikatuz, Nafarroako 14 taldek kantu bana jarri eta Euskaraz bizi nahi dut diskoa plazaratu dute; 5 euroko salneurrian. AEK eta IKA euskaltegietan, EHEn, Sortzen eta Nafarroako Ikas-tolen Elkarteak eskura daite-ke, eta Elkarren ere bai. Diskoaren irabaziak Iruñeko Euskalgintzaren Bilgunera bideratuko dira.

Perlak
Perlak
Autoekoizpena



Oihane Abarrategi, Patxi Agi-rre, Ilargi Agirre eta Maite Mar-tiarenak osatzen duten taldea pasa den urtean sortu zen Za-rautzen. Taldearen izen bereko estreinako diskoko zazpi abes-tiak Mungiako Gaur estudioan grabatu zituzten; Aitor Abio izan dute produktore, eta Jon Asier Zubelzuik egin du maste-rizazioa. Adituek diotenez, 80ko hamarkadako post-punk soinuak antzeman dakizkieke.

Info+: xurru.com

kantaldia > habanerak

XXVIII. ekitaldia beteko du aurten Getxoko Habanera eta Itsas Abesti Jaialdiak. Irailako bigarren aste akabuan izango dira emanaldiak, barikuan hasi eta domekara bitartean. Arrastiko 19:30ean ipini dute hitzordua Areetako Geltokia plazan eta sarrera doan da. Egitarau aurrerapenaren arabera, ondorengoek abestuko dute: lehenengo egunean, irailaren 12an, barikua, Gironako Peix Fregit; bigarren egunean, irailaren 13an, zapatua, Gironako Neus Mar Grup; eta azken egunean, irailaren 14an, domeka, Getxoko Ondarreta Abesbatza.

Info+: getxo.net

zuzenekoak > eguenak Gorlizen

Gorlizko Xurru taberna-aretoak udako eguenetarako egitaraua helarazi digu; terrazan izango dira doako musika-emanaldiak, eta hurrenez hurren joko duten talde zein bakarlariak hauek: uztailaren 31n Beau Geste; agorriaren edo abuztuaren 7an Lee Perk Trio; hilaren 14an, Igelaren Banda (Bixente Martinez, Hasier Oleaga eta Amañur Cajaravilee); hilaren 21ean Joseba Irazoki; hilaren 28an zelanbaiteko topagunea antolatuko dute, eta horretan parte hartuko dute Maracas Para 2 (Hasier Oleaga eta Rauli Romo) eta Velas-Barru (Carlos Velasco eta Borja Barrueta) musikariek, MR. Boss-en ekarpenagaz; irailaren 4an Wolf Saxon eta Twin Raptors; azkenik, irailaren 11n Victor De Diego Trio.

Info+: xurru.com

REBEL TATTOO



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Ignacio Aldecoa lehiaketa

Euskaraz zein gaztelaniaz, **ipuinak** bidaltzeko aukera **irailaren 2ra arte**

Idazle gasteiztar Ignacio Aldecoa Isasiren (Gasteiz, 1925-Madril, 1969) omenezko ipuin-lehiaketak XLIII. ekitaldia beteko du aurten. Lanak euskaraz ala gaztelaniaz aurkeztu ahal dira, eta sariei dagokienez, hizkuntza-kategoria horietako bakoitzeko irabazleek 6.000 euro jasoko dituzte. Arabako Foru Aldundiak antolatzen du lehiaketa eta lanak bere egoitzara bidali behar dira: Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailera, alegia; Probintzia plaza 5, 3. solairua, 01001 Gasteiz.

Ipuinen betebeharreri dagokienez, ondoko hauek dira: gitxienez 10 eta gehienez 25 orrialdeko luzera izan beharko du (inprenta letraz, Arial 12 edo antzekoa; lerro artean espazio bikoitza), eta ezingo

«Hizkuntza-kategoria bakoitzeko irabazleek 6.000 euro jasoko dituzte»

da lan bera hizkuntza bietan aurkeztu; esan barik doa argitaratu bakoa izan behar duela. Lanen kopia bi aurkeztu beharko dira, sinatu barik, eta horietako bakoitzean izenburua eta izengoitia bakarrik ipiniko dira. Horrekaz batera gutun azal itxi bat aurkeztuko da, barruan hurrengo hauek jasoko dituen: egilearen



Ignacio Aldecoa XLIII. Ipuin Lehiaketako kartela

izen-abizenak, NANaren fotokopia edo (atzerritarra izanez gero, horren baliokidearen fotokopia), helbidea eta telefonoa; eta gutunazalaren kanpoaldean izenburua, izengoitia eta zein lehiaketatar aurkezten den zehaztuko dira.

Hala bada, ipuinak aurkezteko epea ondo gordetzea besterik ez zaizu falta; azken eguna irailaren 2a izango da, eta daborduko bidal ditzakezu. Oporraldia bali dezakezu ipuina sortu, egituratu eta idazteko, beste hainbat onura artean, sari potoloa eskura dezakezu... Sormena aske utzi, burua astindu, atzamarrei eragin... ○

Info+: www.alava.net

liburuak



Poeta katalan garaikideak
Hainbat egile
Elkar

Urrezko Bibliotekan sartzeko asmoz, orain 17 urte Ibaizabal argitaletxeak plazaratutako lanari azal eta hitzaurre berriak jarri, orraztu eta okerrak zuzendu ostean, berrargitaratu da Gerardo Markuletak itzultako *Poeta katalan garaikideak, antologia*: XX. mendeko 9 poetaren zortzina poema.




Memoriak, Mikel Laboaren...
Mari Sol Bastida
Elkar

Laboagaz partekatutako lanbide- eta bizi-ibilbidea jaso ditu Bastidak *Memoriak, Mikel Laboaren biografia* bat lanean. Oroitzapenez gainera, hainbat agiri eta lekukotzaren zehaztasunak dira oinarri. *“Memoriak eta historiak, esparru soziokultural nahiz pertsonalean, bat egiten dute...”*

[kirola]

Diego Izquierdo > hondartzako eskubaloia

“Araua bere horretan jarraitzen duen bitartean, ez dugu lehiaketetan parte hartuko”



Espainiako Federazioak hondartzako eskubaloia jokariak bikinian jokatzerara behartu gura ditu

Espainiako Eskubaloia Federazioak hondartzako eskubaloia jokariaren janzkera arautu gura du. Proposamenaren arabera, neskek bikinia erosi beharko dute, bai ala bai. Euskadiko Eskubaloia Federazioaren hondartzako eskubaloia arduradunagaz izan gara.

—Zelan hartu duzue Espainiako Eskubaloia Federazioak esan berri duena?

—Europatik datorren araudi bat da, eta Espainian zuzenean ezarri nahi dute, neskek bikiniagaz jolastea derrigortzen duen araua kontutan hartu gabe. Suancesen (Kantabria) egin zen lehiaketan parte hartu zuten taldeei esan zieten bikinia janzten ez bazuten ezin izango zutela gehiago jokatu. Gure aldetik, pentsatzen dugu arau horrek jarraitzen duen artean ez dugula Espainiako Federazioaren hondartzako eskubaloia lehiaketetan parte hartuko.

—Zergatik ikusten dute beharrezkoa hondartzan bikiniagaz jokatzea?

—Nire ustez, emakumezkoen hondartzako boleian oinarritu dira, baina alde han-

dia dago kirol batetik bestera. Eskubaloian kontaktu handia dago, eta boleian, berriz, ia ezer ere ez. Gainera, boleia kasuan, soilik profesionalak daude behartuta bikinian jokatzerara, eta eurek erabaki zuten hala izatea, publizitate kontu batengatik edo. Gure kasuan, berriz, amateurak dira, dibertitzeko jokatzen dutenak, eta erabaki hori gehiegikeria dela uste dut.

«Hondartzako boleian oinarritu dira, baina horrek ez dauka zentzurik»

—Erabaki horrek Euskal Herriko talde guztiengan eragingo du? Lehiaketa guztietan?

—Bai, estatu mailako lehiaketa guztietan eragingo du. Kirol Kontseilu Gorenarekin bildu ziren aurreko egunean, eta iragarri zuten, egungo araudiarekin jarraituko dute, hau da, mangarik gabeko kamiseta eta praka motzean jokatu ahal izatea mantenduko dute. Hala ere, talderen batek Europako lehiaketa batean parte hartu nahi badu, bikinian jokatu beharko du.○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 **Kasune 18 • ALGORTA**


Eduardo San Andres

Zientzia atala abiatu dugu, Jentilkoba atalagaz txandakatuko dena; hilean behin. Bertan agertuko diren testuak Eduardo San Andres matematika irakasle sopoloztarak idatziko ditu; zientziaren eremu luze-zabalean murgilduko gaitu


Arrautza edo oiloa? (II)

Aurreko zenbakian izaki bizidun berri bat zelan sortzen den aztertu genuen. Prozesu horretan, enbrioi garapenean, akatsen bat suerta zitekeela ere aipatu genuen, eta akats edo mutazio genetiko horrek indibiduoan eduki zitzakeen ondorioak ere buztartu genituen. Jarrai dezagun bada...

Mutazio genetiko bat ausa hutsaz agertzen da, eta izan daiteke hilgarria, kaltegarria, garrantzi gutxiak ala onuragarria indibiduoarentzat. Adibidez, homo sapiens batentzat sei hatzamar edukitzeak esku batean ez du ezelako garrantzirik, baina begiko zelulen sortze-prozesuan parte hartzen duen gen batean mutazio bat oso kaltegarria da, ezpairik gabe. Gainera mutazio genetiko baten balioa ingurumenaren arabera dago, esate baterako: klima oso hotz batean gorputza hilez betetzen duen mutazio bat ona da. Beste aldetik ingurumenako baldintzak aldakorrek direnez, momentu batean onuragarria den mutazio bat, kaltegarria izan liteke beste momentu batean.



Imagina dezagun zaldi talde bat Afrikako lautada batean orain dela milioika urte. Egun jakin batean zalditxo bat jaiotzen da mutazio genetiko batekin. Horren ondorioz, bere lepoak ohikoa ez



Charles Darwin (Ingalaterra, 1809-1882)

den luzera handia dauka. Ingurumenaren arabera mutazio hori positiboa izan daiteke, adibidez: zuhaitzen adarrak nahiko altu baldin badaude, beste zaldiak baino hosto gehiago jan ahal izango ditu, osasun hobea

«Txori batek arrautza jarri; barruko txitaren enbrioi garapenean mutazio bat... txoritxo mutante bat jaio, eta horri ‘oilo’ deritzogu»

edukiko du eta besteak baino kume gehiago edukiko ditu, gainera bere ondorengoei lepo luzeko gen hori transmitituko die. Eta horrela, belaunaldi batzuk geroago, taldeko zaldi guztiak lepoluzedunak izango dira. Eta ‘jirafa’ deituko diegu. Eta hona

hemen, laburtuta, zelan sortzen diren espezie berriak, aurreko beste batzuetaz abiatuta eta eboluzionatuz. Darwin-ek bere 1859ko *Espezieen jatorria* liburu ospetsuan deskribatu zuen lehendabiziko aldiz prozesu hau.

Oilo baten antzeko txoria

Orain dela milaka urte oilo baten antzekoa zen txori batek (bere aintzindari ebolutiboa) arrautza bat ipini zuen. Horren barruan, txitaren enbrioi garapena aurrera joan ahala, mutazio bat gertatu zen, eta txoritxo mutante bat jaio zen. Txori horri ‘oilo’ deitzen diogu. Hala bada, badaukagu irabazlea: arrautza izan zen lehenago. Eta arrautza hori oiloa ez zen hegazti batek ipini zuen! o

Igotz Zubizarreta > kultura, euskara eta hirigintza zinegotzia

“Udal zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen ahalegintzen gara”



Igotz Zubizarreta Uribarri (Plentzia, 1972) jatorriz plentziarra izan arren, inork baino hobeto ezagutzen ditu Lemoizko egunero-ko kontuak. Izan ere, orain dela hamaika urte bere jaioterria utzi eta Armintza auzoa hartu zuen bizileku. Bizitzaren kontuak direla-eta, politikan aritzea erabaki zuen Zubizarretak, eta daborduko hiru urte daroatza Kultura, Euskara eta Hirigintza zinegotzi lanetan Lemoizko Udalean.



Igotz Zubizarreta, Lemoizko zinegotzia

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak, indarguneak eta erronkak Lemoizen?
—Lemoizen euskararen berbakeraren transmisioak beherakada nabarmena jazo duela eta gutxiago erabiltzen dela aipatu beharko nuke. Hori da gure euskararen ahuleziarik nagusia. Indarguneen artean, berriz, esango nuke lemoiztar ugariak badakitela euskaraz, eta beste askok ulertzen dutela. Horrenbestez, horiengan guztiengan erabileran eragitea eta hura sustatzea dugu erronka nagusia.
—Hori lortzeko zeintzuk egitasmo jarri dituzue martxan?
—Lemoizko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan hainbat arlo jorratzen gabiltza: haurrak, gazteak eta gurasoak, bereziki. Adin tarte horietan eragiteko hainbat egitasmo jarri ditugu martxan, hala nola, umeentzako udalekuak, Beharsarea eta euskaraz olgetan. Gainera, Lemoizko Udalak dituen bestelako zerbitzuetan ere euskarazko zerbitzua eskaintzen saiatzen gara.
—Eta erabilerari dagokionez, baduzue ekimenik edo proiekturik martxan?
—Udalean erabilera plan bat jarri dugu martxan euskararen erabilera sustatzeko.

Hala, tokiko langileak euskalduntzeko eta euren lana, ahal den neurrian, euskaraz egiteko ahalegin bereziak egiten gabiltza. Bestalde, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak bideratzen duen Berbalagun-proiektuan ere modu aktiboan parte hartzen dugu.

Etorkizunera begira, udalerriko berbakeraren transmisioa sustatzeko ahalegin berezia egin gura genuke. Izan ere, eus-

“Gure berbakera belaunaldi berriei transimitzeko ahalegina egin behar dugu”

karazko ondare izugarri handia dugu udalerrri hontan, eta hori jendarteratzeko beharra eta nahia dugu, jendeak gure berbakera ezagutu dezan. Horrez gain, belaunaldi berriei transmititu beharko genieke, ondoren eurek ere etorkizunean erabil dezaten.

Lemoiz

Biztanle kopurua
2006an 981 biztanle.
2011n 1.081 biztanle.

Euskaldunak
564 euskaldun, %57,7 (2006)
605 euskaldun, %56 (2011)

Ia-euskaldunak
211 ia-euskaldun, %21,5 (2006)
268 ia-euskaldun, %24,8 (2011)

Erabilera-datuak
Datu fidagarrienak kale erabilerari dagozkionak dira:
%11,4 (2006)

Harremanetarako:
946 579 276
euskara4@uribekosta.org

Info+:
www.lemoiz.eu

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitez.

Especialistas en
desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos

C/Iturgibai, 13
48620 Plentzia
Telf.: 94.677.31.28
www.cafebarzuazu.com

Café-Bar
Plentzia

ABIAN
HERRIKO TABERNA

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

berezi
Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

txakoli
mota
gane
txakolina

Leioa/Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BODEGUILLA
BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

fugu
sushi take away & delivery

Bar batean eginda japoniar era tradizionalan
www.fugulasarenas.com
Evaristo Churrua Kalea 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa

ALURRI
GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

KAI EDER
JATETXEA
Menu ederra itsasoari begira
Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com

portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Hanburgesa faltsua

Hirugiharra eta arrautza frijitua ogi artean



Pintxoex gain, afariak ematen dituzte aste akabuetan Abian kultur elkartearen tabernan

Uda hasiera eurtsua izan da aurtengoa, eta uztailean ez da hondartzetako txosnetara joateko aukera ugari egon. Hala ere, ez kezkatu egun euritsu horiek jarraitzen dutelako, goiza zein arrastia pasatzeko leku aproposak aurki baitaitezke gurean, hala nola, aurrekoan aurkeztutako Abian kultur elkartearen taberna. Lokal honek asteburuetan afaltzeko aukera ematen du, hainbat bokata eta plater konbinatu eskaintzen baititu. Hala ere, orrialde honetara dakarkizuguna ez da horrelakoa, ohi bezala egunero barra gainean egoten da pintxo horietako bat baik. Zein den jakin gura duzu? Jarraitu honako pausoak eta etxean bertan dastatzeko aukera izango duzu!

Hasteko, molde-ogi xerra bi hartu

eta forma biribila emango diegu. Horretarako, nahikoa da katilu bat hartzea eta horregaz ogia moztea, hanburgesa itxura har dezan. Ondoren, zartaginean olio apur bat berotu eta bertan ogiak alde batetik txigortuko ditugu. Behin hori eginda, maionesa jarriko dugu ogien alde batean, eta gerorako baztertuko ditugu. Jarraian, arrautza bat eta bi edo hiru hirugihar-xerra frijituko ditugu. Hori eginda, aurretik prestatutako ogi bat hartu, eta maionesa daraman aldean arrautza eta hirugiharrek jarriko ditugu. Azkenik, beste ogia horren guztiaren gainean jarriko dugu tapa moduan. Zer iruditzen? o

Osagaiak: molde-ogia,
maionesa, arrautza,
hirugiharra eta olio.

uk **zure**
publizitatea
hemen !
94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Croissanterie
Brioche

MONIE JAIA 1
48993 Getxo (Bizkaia)
croissanterie-getxo.blogspot.com

94 460 86 48

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Araluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratia@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Libxerriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

UKnatura

ESKOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALETE
MARIA DÍAZ DE HARO, 68
48960 PORTUGALETE (GETXO)

2013-2014 KURTSOA

*BIOERAKUNTZA TALDEAK
*ARTISAU XABOIAK ETA KOSMETIKAK
*BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
*ENERGIA BERRIZTARIAK
*HEGAZI KATZAK

ETA ASKOZ BEHAGO.

www.uknatura.org 692705471 / 646742241

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

San Fermin jaietako txupinazoa udalaxe-plazan bizi izan zenuen eta jarraian kristoren parranda egin zenuen. Oraindino ez duzu lortu biharamuna gainditzea...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Azterketak amaitu dituzu behingoz, zorionak! Orain, gozatzeko unea iritsi zaizu eta merezi bezala ospatuko duzu irakasgai danak gainditu dituzula. Ziur egon, ederto pasako duzu!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Gurasoek hilabete osorako paga kendu dizute zigor legez, aurrekoan berandu iritsi zinelako etxera. Udako lanen bat bilatu beharko duzu edo dirua lagunei eskatu. Zorte on!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Uda hau kirola praktikatzeko baliatuko duzu. Aspaldiko partez, gogotsu zabilta. Bizikleta edo patinak, berdin dizu, helburua sasoi hartzea da-eta. Animo!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Datorren zapatuan familia osoagaz bazkaria daukazu eta postrea eroatea egokituko zaizu. Arazoa da ez zarela oso trebea sukalde kontuetan. Baina ez egizu erosi: tranparik ez, gero!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Egun osoa emoten duzu hondartzan, beti leku berean: soroslearen alboan. Berak, ordea, itsasoari begiratzen dio. Hurbildu eta beragaz hitz egingo ahal duzu iraila baino lehen!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Proposamen polita egingo dizute egunotan: bidaia ederra bizikletaz. Arazoa da ez dakizula bizikletan ibiltzen. Agian auto-gidaria behar dute janaria eta arropa erateko...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Igerilekuko trebeena zarela uste duzu, bertako lamia zarela. Besteen begirako, barriz, putzuko sardina freskue! Zu egon lasai eta segi gozatzen, eta besteak hor konpon! Ondo pasa!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Goiz osoa uretan ibili ostean zimurtuta aterako zara itsasotik eta kristoren goseagaz. Poltsa azkar zabalduko duzu, txorizo-bokata dastatzeko gogoz, baina... Etxean ahaztu duzu! Arraioa!

META



(Irailak 17 urriak 16)

Agure bat hurbilduko zaizu eta, jaramonik egingo ez diozun, begizkoa botako duzu. Uda osoa larri ibiliko zara zer gertatuko. Hurrengorako kasu apur bat egin, besterik ez dizu eskatu.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Neka-neka eginda zaude eta zuretzako denbora behar duzu. Onena izango da ezer esan barik alde egitea leku urrunen batera, telefonoa ere etxean utzita. Horrela atsedean hartuko duzu.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Ez da sasoirik onena laneko bilerak egiteko, opor garaia da-eta. Beraz, esaiouzu nagusiarri irailan gogotsuago egongo zarete eta orduan etekin handiagoa aterako diezuela bilerei.

Astialdi eta suspertze IKASTARROAK

IKASTARO LUZEAK

- ASTIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA *Getxon!*
- ASTIALDIKO ZUZENDARI IKASTAROA
- JENDARTE KULTUR DINAMIZATZAILEA
- NOLA SUSTATU PARTE-HARTZEA?
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ETA SEXUALITATEA
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ASTIALDIAN
- HEZKIDETZAN ADITUA
- KULTURARTEKO HEZKUNTZAREN HASTAPENAK



IKASTARO LABURRAK

- Barreterapia
- Eraldaketarako hezkuntza eta kontsumo arduratsua
- Haurren parte-hartzea sustatzeko teknikak
- Zer behar dute adimen gaitasun handiko pertsonak?
- Kontu-kontari bizitzaren hari
- Arteterapia, gorputza eta dantza adierazpena

> Matrikulazio epea irailaren 1etik 30era

Bizkaiko

Urtxintxa Eskola

Zabalbide 26, 48006 BILBO • T: 94 432 04 45


urtxintxaeskola.org



Laura Sales, 2014

denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Teatro-lanak jokatzen diren lekuak, agertokiak. 2. Udarearen antzeko fruitua, biribilagoa baina. 3. Marinelen zerrenda. Bira eman, jiratu. 4. Mendiko ateak. Koordinadora Abertzale Sozialistaren laburdura. 5. Baldintzetan. Laudiko auzoa. Lehenengoko bokala. 6. Irendu aditzaren oina. Pluralean, piraten edari alkoholoduna. 7. Pluralean, musulmanen baraualdia. 8. Bokala. Euskal sindikatu nagusia. Ukapena. 9. Egokitua, egona. Radonaren ikur kimikoa. 10. Ukitu aditzaren oina. Lapurdi behereko udalerria, Aturi ibaiaren ertzean.

Goitik behera

1. Itzulbira eman, jirabira egin. 2. Guztira, denera. ...egin, goitik ari. 3. Arrantzan egiteko leku aproposa. Poliki, goxoki. 4. Ar-tsenikoaren ikur kimikoa. Ubidea. 5. Itsas-bazterreko amildegi. Jakingarri. 6. Egiteko era edo modua. Oinarizko edari. 7. Errepi-katuz, barrearen onomatopeia. Pluralean, ahotsaren edo hotsaren garaiera. 8. Haize guztiz indartsuko ekaitzak. Bigarren bokala. 9. Arto, hitz elkarteetan. ...izan, bat etorri, ados egon. 10. Arrazoiak, zergatiak, zioak.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Horrenbestez, zer da lehenago oiloa ala arrautza?

> Aurrekoaren erantzuna: Berango Karabiazpi Auzoa
> Irabazlea: **Itziar Sagarminaga**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, SOPELA. Tel: 944 047 420
oinutsik@euskalnet.net

Zein herri auzkeztu digu oraingo MundUKatuak?

- **Islandia**
- **Asturias**
- **Mexiko**

> Aurrekoaren erantzuna: Itsas zaldia
> Irabazlea: **Ibai Agudo**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Astakiloen abenturak

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



KARLA LLANOS ETXABEK UTZITAKO ARGAZKIA

Memorias de Getxo bloga

GEROA IKASTOLAKO GURASO-TALDEA PAELLETAN, 1980

Getxoko Geroa Ikastolako guraso-taldea duzue argazkian, 1980ko Paella Egunean. Irudian, aitzak baino ez dira ageri, paella egitea eurei otu zitzaaien nonbait... Paella Egunean partzen zuten Itxas Argiakoakaz elkarlanean jarduteko, besteak beste, txosnan txanda bat eginez. Batzuk ikastolako zuzendaritza batzordeko kide ziren, eta akorduan dutenez, sasoi hartan hartu zuten Geroak ibilaldi propioa abiatzeko erabakia, San Nikolas ikastolatik bereiziz. LLanosek dioenez, “gure seme-alabak izan ziren Algortatik pasatu barik, Geroako lehenengo ikasle-belaunaldia”. ○

Zutunik: Pedro Lopez, Jose Luis Ruiz (GB), Karla Llanos, Luis Villagra, Jaunmi Saratxu
Makurtuta: Julito Uribetxebarria

USUA DE LA FUENTE > musikaria

“Basamortu baten erdian emon gura dut kontzertu bat”

Testua: Iker Rincon Argazkia: Usua de la Fuente



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Niña Coyote.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Tarantinoren *Death proof*-en edo *Kill Bill*-eko edozein paper egingo nuke gustura.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?
Gurasoen kotxeko atzealdean leihotik begira eta Led Zeppelin topera entzuten soinu ekipoa.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
Ezagutu ditudan ia leku guztietara bueltatuko nintzateke.

Eguna ala gaua? Zergatik?
Eguna, argiak asko laguntzen du gauzen alde ona ikusten.

Zein da zure ametsetako bat?
Neguak bero egiten duen nonbait pasatzea, beti uda balitz bezala bizi ahal izateko.

Oihukatu duzun azken aldia?
Gehiegitan oihukatzen dut, kar kar.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Ezin bakarra aukeratu, kostaldekoa naiz, baina mendialdea ere ederra da gurean. Aldatzeko aukera izatea ezinhoba da.

Non gura zenuke kontzertu bat emon? Zergatik?
Basamortu baten erdian, gure soinua besterik ez entzuteko.

Kontzertuak emoteko lekurik onena?
Nire bateriako aulkian, kar kar.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat?
Los Angelesen ezin izan genuenean jo, instrumentuak lapurtu zizkigutelako kontzertuaren aurretik. ○

LABURREAN— Azkenaldian, Leioako eta Sopelako jaietan Usua de la Fuente, *Ursula Strong* ezizenaz ezagunagoa dena, oholtza gainean bateria astintzen ikusteko aukera izan dugu. Izan ere, Zuloak taldean bateria jotzeaz gainera, Niña Coyote eta Chico Tornado taldean dabil gaur egun Koldo Sorettegaz batera. Oso eroso sentitzen da kontzertuak ematen, eta emanaldi bat emateko lekurik onena zein den galdetzean, “nire bateriaren aulkian bertan” dela aitortzen du.

IRABAZI GURE BIDAIA AHAZTEZINETAKO BAT*

RENAULT CLIO BERRIA 9.600€-AN PIVE-6 PLANA BARNE**

Clio Berria gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,5 eta 6,3 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 90 eta 144 bitartean.

*Promozio hau 2014ko urtarraren 1etik 31ra bitartean egindako eskaerentzat da balagarria. Espainian egotiar diren pertsona fisikoek Renault gamako ibilgailu berrak erosi gero promoziora elikatzeko Renault Sareko salmenta-puntu baten. Kontsultatu oinarriak hemen: www.renault.es/decubre-reault/baseslegales/. **Eskaintza eta PSP gomendatua Pontusian eta Baloarrian Renault Clio Authentique 1.2 berrarentzat: 16 V 54 kW (75 CV), Basic Pack-erekin. Barne dardat BEZA, matrakulazio-zerga, garraio-zerga, RECSA eskaintako promozioak eta PIVE-6 plana. Partikular eta autonomontat da, beldere PIVE-6 Planaren baldintzak betez gero eta finantzazioa Multiestreko bidez eginez gero RCI Banque SA Sucursal en España-rekin. Finantzaketaren gubirako aipa: 24 hilabete. Finantza beharrek gubirako kopurua: 6.000 €. Ez da bateragarria beste finantza-erakuntza batzuekin. Eskaintza hau 2014ko urtarraren 1etik 31ra bitarte egindako eskaerentzat da. Irujoko modeloa: Renault Clio Dynamique Energy 170e berrak 545 66 kW (90 CV) aukerarekin (17"-ko aleaziozko hagunak, pintura metalizatu berria eta 1. mailako pertsonalizazio-paketea). PSP gomendatua eskaintzak eta PIVE-6 plana aplikatuta: 12.700€.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki

Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri

Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean

Urte osoan argazki zahar eta barriak

Urte osoan zure proiektuak lau haizetara

Urtean 20 euro

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz

neuk ere gura dot

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

54 UK

OLGETAN SOLAS 2014



ERANDIOKO JAIETAN



ASTRABUDUA (abuztuak 9)
SANTIMAMI (abuztuak 18)
ALTZAGA (abuztuak 28)
ENEKURI (irailak 13)
LUTXANA (irailak 20)



Familia giroan
ondo pasatzeko kirol-jolasak

www.erandiokoeuskarazerbitzua.com - 94 48 90 128 - euskara@erandioko-udala.net

Atzeko jesarlekua estreinatuta aurretik...

Praktika ezazu!

Gidabaimena euskaraz

Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik 100 €ko diru-laguntza, * eta 100 €ko erregai-txartelen zozketa

Ikasi eta irabazi!

* 17-23 urte arteko erandioztarrentzat

ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Ikasturteacurso 2014/15

Matrikula zabalik
Matrícula abierta

Irailak 1 - 19 Septiembre

Titulu ofizialak • Títulos oficiales
Internet bidezko irakaskuntza • Enseñanza por internet
Maila eta ordutegi guztiak • Todos los horario y niveles

HADEk diruz lagundua

Udalaren bekak, %100eraino / Becas del Ayuntamiento, hasta el 100%

944 676 075 - erandio.eusk@euskalnet.net

Desanexio kalea 4, 3.a (ALTZAGA) Atxutegi kalea 6, behe (ASTRABUDUA)